

Aita Barandiaran, 25 urteko zerbitzua



GUaiXe.eus

PREs
TOKIKOM

Sindikatu eta eragileek manifestazioak deitu dituzte iganderako, Langileen Egunerako



Sakanerria >> 3/9



Plana, sinadura, eta segi aurrera!

>> 14-16



Irurtzundarrak osasun etxeko egokitzepenaren alde >> 11



Altsasuko saskibaloia taldea lauko finalean >> 19



Dantzaren Egunerako sorpresak Altsasun >> 21



XXVII. Sakanako Ibilaldi Handia bihar, Irurtzundik >> 19



Maiatzekin batera artaldeak gora >> 3

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Izei Zubiria Sanchez
Etxeko txikiak politikari, ZORIONAK eta mila muxu! Etxekoan partez.

apiribilak - maiatzak 29-5

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Txistu, piano, biolin eta akordeoi ikasleen kontzertua. Apirilaren 29an, ostiralean, 17:30ean Etxarri Aranazko elizan. **Musika eskola.**

Les Veus del Casal & Cor Adagio. Apirilaren 30ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Belarri motza sound system, Dj Txen, Dj Aitor eta Dj Lokesea. Apirilaren 30ean, larunbatean, 22:30etik aurrera Altsasuko gaztetxean.

Harvey Keitel eta El Sr Lobo. Apirilaren 30ean, larunbatean, 23:30ean Olatzagutiako Clinker tabernan.

Kontzertu erraldoia. Maiatzaren 5ean, ostegunean, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Baraiaingo Alaitz eta Altsasu Institutuko ikasleak.**

Piano, zeharkako txirula, kantu eta gitarra ikasleen kontzertua. Maiatzaren 5ean, ostegunean, 18:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Musika eskola.**

Dantza

Dantzaren Nazioarteko Eguna. Apirilaren 29an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Dantzari Txiki Eguna. Apirilaren 30ean, larunbatean, 12:00etan Altsasun.

Antzerkia

Azken ameslaria (On Kixoteren beste historia bat). Apirilaren 29an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Altsasu Institutuko antzerki tailerra.

Bakarrizketa

Enrique Loyola. Apirilaren 29an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiako Barandi tabernan.

Zinema

La habitación. Apirilaren 29an, ostiralean, 22:00etan eta maiatzaren 1ean, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteerak

XXVII. Sakanako Ibilaldi Handia. Apirilaren 30ean, larunbatean. 6:00etan (luzea), 7:30ean (motza) eta 9:30ean (txikia), Irurtzundik. **Iratxo mendi taldea.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Lizarra-Altsasu. Apirilaren 30ean, larunbatean, 9:30ean Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. 92 km. **Zikloturista taldea.**

Dulanzko gaina. Maiatzaren 1ean, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 60 km. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Irteerak

San Pedro zelaira. Apirilaren 30ean, larunbatean, 17:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Erakusketak

Arbizu, barneko urradurak sendabidean. 1936-2016. Maiatzaren 1era arte Arbizuko udaletxeko batzar gelan.

Joan etorriko bidaiak. Maiatzaren 8ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Txexo Artea Tailerra.**

Tailerrak

Drogak. Informazioa eta arriskuen murrizketa. Apirilaren 29an, ostiralean, 18:30ean Irurtzundiko Larrazpi gazte elkartearen. **Antolatzaileak: Larrazpi, Irurtzun-Arakil Gazte Asanblada eta Gizarte Zerbitzuak.**

Bestelakoak

Dardo txapelketa. Apirilaren 30ean, larunbatean, 16:30ean Altsasuko La Encina elkartearen.

Garraxi festa. Apirilaren 30ean, larunbatean, 21:00etatik aurrera Altsasuko gaztetxean.

Bolo eta dardo txapelketa. Apirilaren 30ean, larunbatean, 21:15ean Altsasuko



«La habitación» filma ikusgai dago lortia kultur gunean.

Intxostiapunta gazte gunean.

Sing star txapelketa. Maiatzaren 1ean, domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Billar txapelketa. Maiatzaren 2an, astelehenean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Ikurrina debekatuta. Apirilaren 29an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean batzarra.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 29an, ostiralean, 20:00etan Ihabar, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

Auzolana Enneco parkean. Apirilaren 30an, larunbatean, 9:00etatik 13:00etara

Etxarri Aranazko Danbolintxulo dermioan. **Nafarroa Bizirik fundazioa.**

Sakanako euskalgintzaren bilera. Apirilaren 30ean, larunbatean, 11:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Euskaraz bizi nahi duten guztiei zabalik.

Euskal Herria prekaritatearen kontra. Langileok martxan, eskubideak aktibatuz. Maiatzaren 1ean, igandean, 12:30ean Altsasuko Foru plazatik, manifestazioa. **LAB.**

Orainak itotzen gaituelako. Sakanako etorkizuna eraiki. Maiatzaren 1ean, igandean, 18:00etan Altsasuko Foru plazatik, manifestazioa.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 1ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Centro Integrado Politécnico
FP SAKANA LH
Ikastetxe Integratu Politeknikoa



Mekatronika Industrial (Goi Maila Zikloa)
Mantenu Elektromekanikoa (Ertain Maila Zikloa)
Soldadura eta Galdaragintza (Ertain Maila Zikloa)
Mendi Ertain Kiroletako Teknikaria (Ertain Maila Zikloa)
Merkataritza-Zerbitzuak (Oinarriko Lanbide Heziketa)
Txirbil-harroketa Bidezko Mekanizazioa (Profesionaltasun Agiria)
Equipo Industrialaren Mantentze Lanak eta Muntaketa Mekanikoa (Profesionaltasun Agiria)

Ate irekiko jardunaldia
maiatzak 11, asteazkena,
arratsaldeko 4etatik 8ak arte.
Hitzaldi berezia arratsaldeko 6etan.

Aurre izen emateko epea:
Maiatzaren 9tik 13ra.

Tlfonoa: 948-564-815
WWW.ifpalsasua.net

>> Etxarri Aranatz / Bakaiku / Iturmendi / ziordia

Maiatzak altxatzera

Maiatzaren 1arekin batera, igandean jasoko dira maiatzak. Etxarri, Bakaikun eta Ziordian goizez egingen da lana; arratsaldean, berri, Iturmendin

Bakaikuarrak izango dira goiztiarrenak. 9:00etan jarri dute hitzordua plazan, bargara oinez joateko asmoarekin. 11:00ak aldera mendipuntan egotea espero dute, maiatza igotzen hasteko. Handik metro

gutxira, **etxarriarrek** pago enborra Hartzabalen zutitzeko lanei eguerdia pasatxo dela ekinen diote, 12:30ak aldera. Bai Bakaikun eta baita Etxarri Aranatz ere, jendetza bilduko da maiatza igotzeko lanak jarraituzera.

Ziordiarrek domekan 9:00etan jarri dute hitzordua, mendate zaharretik bargara igotzeko. Behin

goian, 11:00etan ekinen diote maiatza jasotzeko lanei. Behin herrian, 14:00etan, maiatza txikia jarriko dute haurrek Txipudian. 15:00etan herri bazkaria izanen da.

Azkenik, **iturmendarrek** 18:00ak aldera lanari helduko diote: plazan etzanda dagoen pago enbor luze txuritu jasotzea. Lana despedituta auzatea izanen da.



SAKANA

Igandea, langileen eguna

Maiatzaren 1erako deialdi ugari egin dituzte sindikatuek. Sakanan LAB deitutako manifestazioa izanen da deialdi bakarra, igandean Altsasun, 12:30ean Foru Plazatik abiatuko dena. Gainontzeko sindikatuek Iruñera deitu dute

Maiatzak 1, langileen eguna. Aurten igandearrekin egokitu da langileen eguneko aldarrikapen eguna eta sindikatuek makina bat deialdi egin dituzte. Besteak beste, lan-

gileen eskubideen urraketak salatu, egungo prekaritateagaitzesi eta langileen eskubideen aldeko borroka deituko dute sindikatuek.

ELA sindikatuak aspaldiko partez Iruñean jarri du hitzordua. Sindikatuak 11:30ean biltzeko deia egin die afiliatu eta jarraitzaileei, Iruñeko Gurutze Plazan. Bertatik manifestazioa abiatuko da, udal txean despedituko dena, *Gehiago*

baliodugu lelopean. 14:15ean herri bazkaria antolatu dute Bernat Etxepare ikastetxean eta arratsalderako puzgarriak, antzerkia eta jaialdia ere antolatu dituzte.

LAB sindikatuak *Langileok Martxan, eskubideak aktibatuz!* lelopean ospatuko du aurtengo maiatzaren lehena. Eskualdekako deialdiak egin ditu LABek. Sakanakoa Altsasuko manifestazioa

12:30ean abiatuko da, Foru Plazatik, eta Iruñeko ordu berean, Gaztelu Plazatik.

UGT eta CCOO sindikatuek batera ospatuko dute maiatzaren lehena. Manifestazioa deitu dute igandean, 12:00etan autobus geltokiazaharra zenetik aterako dena eta Sarasate pasealekuan despedituko dena, *Contra la pobreza salarial y social. Trabajo y dere-*

chos lelopean. Bertan egingo dute euren ekitaldi nagusia.

Bestalde, CNT, CGT, Solidari eta Steilas sindikatuek deialdi bateratua egin dute, *Kalera, askatasun eta eskubideak berreskuratzera* lelopean. Igandean, 12:00etan, San Lorenzon bilduko dira, Iruñeko udaletxean bukatzeko. Bertan ekitaldia egingo dute.

9. orrian segi

LABek lanpostuak sortu direla gaztigatu du

Joan zen urtean metalgintzan 520 lanpostu sortu zirela nabarmendu du, hori da hobekuntzaren arrazoia

Finantza sektoreak eragindako krisiak langabezia handitzea ekarri zuen. Sakanako LABeko arduradun Gaizka Uhartek esan du gaur egun duela bi urte baino hobe gaudela. "Gainera, ibarreko hainbat eragileren adostasunarekin gure etorkizuna hemen bermatuko duen garapen eredu berri baten alde lanean ari gara: Sakanako Plan Estrategikoa". Uhartek, datuak eskutan, ibarreko ekonomiarren joera aldatzen hasi dela adierazi du. "Aurrenekoz, martxoan, kontratazio gehienak industria arloak egin ditu %55,1 (379), zerbitzuenak %41,9 izan dira (288). Industria jarduerak gora egin duenez, gizonetako gehiago kontratatzen dira orain. Duela urte bat emakumezkoak ziren". Prekaritateak emakumezkoek gehia-

go eragiten diela adierazi du Uhartek.

"Enplegu datuak positiboak dira, baina behin behinekotasuna handia da Sakanako enpresetan eta lan munduan sartzen direnek prekaritate bizi dute". Kontratazio askotan legeari iruzur egiten zaiola eta, horregatik, langileen aldeko epaiak daudela gogorarazi du. LABetik langileei lan eskubideak defendatzera deitu dituzte.

Datuak

Krisiaren ondorioz gizarte segurantzaren kotizatzen zuten sakandarraren kopuruak (besteendako lan egiten duten langileak eta autonomoak) etengabe behera egin zuen. 2008tik 2015era %38,55 jaitsi zen kopurua 6.722tik 4.130era, 2.592 gutxiago. Esaterako, sei enpresen itxierak 900 lanpostu galtzea ekarri zuen. Joan zen urtean kotizatzaileen kopuruaren beherako joe-



Enpresen tamaina	2015		2016		Aldea	
	Langileak	Enpresak	Langileak	Enpresak	Langileak	Enpresak
6 langile baino gutxiago	939	544	954	566	15	22
6 eta 30 langile artean	1.567	126	1.743	139	176	13
30 langile baino gehiago	1.624	24	1.834	24	210	0
Guztira	4.130	694	4.531	729	01	35

Gizarte segurantzaren kotizatzen duten langile kopurua	Urteak	Kopurua
2008		6.722
2013		4.532
2015		4.130
2016		4.540

Langileak sektoreka	2015		2016	
	Langile kopurua	%	Langile kopurua	%
Industria	2.228*	%53,94	2.601*	%54,87
Zerbitzu pribatuak	1.043	%25,25	1.322	%27,89
Eraikuntza	247	%5,98	236	%4,98
Administrazio publikoa	224	%5,42	200	%4,22
Irakaskuntza	185	%4,47	196	%4,14
Soziokomunitarioa	127	%3,07	114	%2,41
Lehen sektorea	76	%1,84	71	%1,5
Guztira	4.130		4.740	

*Metalgintzako lan hitzarmena dutenak 2.266 langile dira aurten, 1.746 joan den urtean.

ra aldatu eta handitu zen: %9,92 eta 410 kotizatzaile gehiago.

Sindikatuak emandako datuen arabera, enpresetan aurten joan den urtean baino 401 langile gehia-

go daude lanean. Enpresa handiek enpleguaren %52,37 sortu dute, ertainek %43,89 eta txikiak %3,74. LABetik nabarmendu dute 24 enpre-

sek ibarreko langileen %40,59 dute. Uhartek azaldu duenez, "enpresa horiek dira Sakanako enplegua hobetzaren arrazoia dira".



Lau hankatan

Xabier Reparaz Extramiana

astekoa

Aurrekoan entzun nuen inoiz baino txakur gehiago dagoela gaur egun. Hirietan batez ere, harrigarri egiten zaigun arren hain bizitoki txikiak maskota batekin partekatzea. Txakur maskoten fenomenoak gure gizartearen hedatzearen arrazoia psikologo batzuek argi azaltzen dute. Gaur

egungo giza erlazioak arinak eta aldakorak diren heinean, jendeak txakurren erlazio finko eta solidoa aurkitzen du. Txakur batek beti itxarongo zaitu etxean, beti poztuko da zu ikustean eta inoiz ez diozu argibiderik eman beharko. Txakur batek hil arteko leialtasuna eskainiko dizu,

bere jabea besterik ez baitu.

Bilbon txakurrendako tabernak daudela ere entzun nuen, kanido hauen berokiak eskegitzeko lekua eta guzti. Zuritobate eta pentsupintxo bat ateratzen omen diote jabeari eta txakurrari. Beldurra ere ematen du fenomenoak, jendeak txakurraren bizitza gizakienaren

gainetik jartzen duenean. Eboladun txakur gizarajo hura gogoratu. Txakurra pertsona bilakatzen denean. Ardiak zaindu edo ehiza egitetik, urbanita snob bat izatera igarotzen denean.

Zerbait aldatzen ari da gizartean, erlazio solidoak animalien gaiteratik bilatu behar baldin baditugu.

Norbanakotasunaren ondorioetako bat dugu txakur maskoten fenomenoak. Norbanakoaren askatasunak, elkartasunaren kaltetan, sortu duen irtenbidea. Azken finean, gabeziak eta hutsuak betetzeko hutsu eginen ez digun hartara jotzen dugu, hura lau hankatan badabil ere.

barrutik kanpora

Zahar-etxe onberagoak

Gaur egun biziaren luzapena lortuta dago gure gizartean. Guztion ametsa da, urte asko eta ahalik hobekien bizi. Ez da amets hutsa, eskubidea ere bada, gizarteak onartu behar duen eskubidea eta, batez ere, adinera iritsi garenok, irmoki aldarrikatu eta defendatu beharreko eskubidea. Zoritxarrez, horretara beharturik aurkitzen gara, ez digute onartzen behar bezala duintasunez bizitzeko daukagun eskubidea, gizartearen alde ahulena hartzen gaituzte. Era-kunde publikoei merke ateratzen

zaie gure pentsioak murriztea, zerbitzuak alboratzea, normalizat hartzen dituzte gure gabeziak; "adinaren gauza".

Ez dut esango erabat baztertuta gaudenik, betidanik egon da jubilatuakiko arreta berezi bat, baina, hori, arreta, gure eskubideak bermatzen ez dituen arreta, duintasunez bizitzeko aukera ematen ez digun arreta. Edozein aitzakiarekin bukatzen den arreta. Gure eskubideen eraginez aldarrikatu ditugun zerbitzuak ere (osasungintza, menpekotasuna, erresiden-

tziak..) ez dute ematen guk eskatzen dugun onberatasun eta kalitatea. Kezkaturik gaude.

Horregatik azken hilabete hauetan Nafarroako Adinekoen Koordinakundeak (ANAPP, LAKARRA, SASOIA, CCOO eta UGT) Zahar-Etxeetan ematen den zerbitzua aztertu du: informazioa, egoera, gabeziak. Publikoak bi bakarrik dira eta ez dugu azalpen garbirik ikusten, etorkizunari begira zalantzak nagusitzen zaizkigu. Pribatuak 73 dira, batzuk irabazi-asmoarekin eta

beste batzuk irabazi asmorik gabe: Udalarenak, Patronatuak, Fundazioak. Kudeaketa enpresak sortzen ari dira orain, aukera merkeena bezala eskainiz. Baina hau badakigu nola lortzen den, zerbitzuaren kalitatea murriztuz.

Maiatzaren 5ean, osteguna, goizeko 11:00etan, Nafarroako Adinekoen Koordinakundeak asanblada antolatu du Iruñeko Planetarioan, jubilatutako. Azterketaren emaitzak jubilatuekin partekatu nahi dituzte, gaur

edo bihar gure bizi leku izan daitezke. Informazioa, elkarriketa eta eztabaidaren bidez lor ditzagun ZERBITZU ONBERAGOIA ETA KALITATEZKOIA EMANGODIGUTEN ZAHAR-ETXEAK. Camino Oslé, UPNAko irakasle ohia eta Nafarroako Geriatria elkarteak kidea, eta Carmen Maeztu, Nafarroako Gobernuko Gizarte Eskubideen Saileko zahar-etxeen arduradunak ere parte hartuko dute. GONBIDATUTA ZAUDETE.

Sasoi jubilatuen elkarte

hara zer dien

Adin txikiko artean menpekotasun berri bat sortu da: teknologia berriekiko menpekotasuna

Antox bezalako elkarteak, betidanik drogamenpekotasunetan lanean aritu direnak, menpekotasun berri honetan jarri dute orain arreta nagusia. Nafarroako 24.000 adingabek baino gehiagok erabiltzen dute mugikorra, eta honekin batera sareak dituen onura eta arrisku guztietara dute sarbidea –non stop harremantara, on line jokoetara, filtrorik gabeko edukiak, jazarpena, iruzurrak...– askotan heldu baten ikuskapenik gabe.

Hezkuntza, gizarte, polizia eta justizia arloetatik azaltzen ari da kezka hau, adituen interbentzioak eskatuz eta eredu eta jarraibideak eskatuz. Gero eta gehiago dira

mugikorraren eta ordenadorearen mende dauden pertsonak, bai helduak zein adin gabeak; teknologia berriak nahitaezkoak bihurtu dira %91rentzat.

Argi dago teknologia berriek helduen mundua goitik behera aldatu dutela, baina adintxikietan egon da aldaketa nabarmena: Internet, munduan egoteko errekurto paregabea da, oso baliagarria den informazioa eta entretenimendua eskaintzen duena, edozein tokitik nabigatu dezakete, uneoro... eskaintzen duen azkartasuna eta aukeren barietatea da gazteek gehien baloratzen dutena.

Gazteek duten bulnerabilitatean eta helduen ezjakintasunean

dago arriskua. Helduak ezin gara mundu digital honetatik kanpo mantendu, gure interbentzioak teknologia hauen erabileraren antolaketan jartzean datza, hauek erabilera on batekin egokiak baitira eta gure semeen heziketa prozesuan lagungarriak gerta daitezkeelako; horretarako beraien lehentasunak ezagutu, interesa azaldu eta beraien ezinegonei erreparatu behar diegu. Azken finean jardura digitalak, ereduak eta arauak behar dituela kontuan hartzea da gauza.

Datu interesgarri batzuk:

-Nafarroako 10 eta 15 urte arteko haurren %61ek du mugikorra. 18 urterekin ia-ia %100ak du.

-Hauetariko %91rentzat mugikorra bere biziko elementu nahitaezkoa da.

-Mugikorraren fenomeno hau antzekoa da gurasoen munduan, ez baitago sektorerik teknologia berrien boomak eragin ez dionik. Gainera, gurasoen %73k ez duela beraien semeek egiten duten erabilera gainbegiratzeko sistemarik ezagutzen onartzen du eta hauen erdiak ez du inolako neurririk hartzen gai honetan.

Teknologi gaixotasunak:

FOMO: Sarean gertatzen den edozer galtzearen obsesioa.

NOMOFobia: Mugikorrak gabe dagoen pertsonak antsietatea edo ezinegona sentitzen duenean, gal-

tzeagatik, ahazteagatik...

PHUBBING: Jendarterean gaudean, ingurukoei kasu egin gabe mugikorrarekin gaudenean.

VIBRANXIETY: Mugikorrak zerbitzetaz abisatu diola pentsatzen duena (gertatzen ez denean ere).

WHATSAPPITIS: Aplikazioa gehiegierabiltzearen ondorioz sortzen den tendoiaren inflamazioa.

VAMPIRING: Momentu oro konektatuak dauden pertsonak, eta gauetan mezuak bidaltzeko dispositiboak erabiltzen dituztenak, lo orduetan. Askotan enteratu ere egin gabe.

Sakanako Prebentzio teknikariak

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

ZUZENTZAILEA: Patxi Flores

ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gko-munikazioa.eus

ADMINISTRAZIOA: Cixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Egun handirako prestatzen

Azken ukitua gakoa izaten da ezkontza eguna gogoangarria izan dadin. Profesionalen aholkuak, ezinbestekoak dira guztia ezin hobe gerta dadin. Honako erreportajearen aukera ezberdinak eskaintzen dizkizuegu. Lore-dendak, lentzeria, bitxiak, argazkilariak, bidaia agentziak, jantziak, ileapaindegiak eta gozokiak.

Eraztuna, bien lotura irudikatzen duena

Izan ezkontza zibila zein erlijiosoa, guztietan eraztuna agertzen da. Eraztunak erosterakoan, bakoitzaren estiloa kontuan hartzea ezinbestekoa da, egunero bitxi hori jantziko delako. Material ezberdinaso, diseinu aukera zabala eta

gainera hala eskatuz gero diseinu pertsonalizatuak egiteko aukera izaten da.

Gizonezkoen osagarrien artean ere erloju handiak nabarmentzen dira, zilar koloreko gerrikoak edota gorbatzak.

Lore sortak

Lore sortak ezkongaien izaera eta joera zehazten du. Ezkontzetan loreak dekorazioko gauzarik garrantzitsuenetariko bat dira. Ospakizunari natura eta freskotasuna ezartzen diote.

2016ko berrikuntzen artean, arrosak dira mota guztietan gehien aukeratzen direnak baita peoniak eta hortentsiak ere. Ingurugiroarekin bat eta landa ikuspegi bat eman nahi izateko-

tan adituek labanda, kamomila edota lirioekin egindako lore sortak aholkatzen dituzte. Beste joera bat, lore bakarreko lore sorta aukeratzea da, xumetasun eta minimaltasunaren bila doazentzat.

Lore sortekin batera ezkontza beraren beste leku batzuk ere lorez hornitzen dira, hala nola, ezkongaien kotxea, ospakizuna egiten den lekua, jatetxea edota emaztegiak buruan izaten

dituen koroak ere. Horrek zerbitzua bere osotasunean kontratatzea eramaten ditu ezkongaiak. Loreak beraz dekorazioaren osagarri dira eta ezkongaien elementu sinbolikoa.

Ospakizuneko elementurik garrantzitsuen dena den, emaztegiaren lore sortak jarraitzen du izaten, hori baita soinekoaren aurrean dagoena eta gonbidatuendako ikusgarri gelditzen dena.



948 564 260
610 098 595
Gartzia Ximenez 33, Altsasu




Zuen egun berezian laguntzeko gaude

Ezkontzako loreak gurekin egiten dituzuen bikoteen artean

ZOZKETA:
Gorraizko gazteluan asteburua, afaria eta spa



www.goikoloredenda.com



Naturaltasuna irudietan

Argazkilari profesionala aukeratuta bizosorako oroitzapenak gordetzea suposatzen du. Aukerarik garrantzitsuenetako bat ezkontza erreportajea izaten da. Beste ezkontzetako erreportajeak ikusi, albumaren kalitatea bermatu, papera ikutu, azalak, materiala, azken finean produkto osoa ona dela ziurtatu. Kontuan hartu beharrezkoa ere bada, ezkongaien naturaltasuna eta bapatekotasuna argazkitara eramateko ahalmena.

Amestutako bidaiak

Ezkontzetako gainontzeko alorrak bezala, bidaienak ere joerak izaten ditu. Askotan bizitzako amets horren bila joango dira ezkongaiak, hondartza eta eguzki bila, beste batzuk abentura bila, herrialde ezezagunetara beste batzuk, hurbilera edo urrutira, baina aukeratzeko ordua iritsi da.

Nora joan bikotearen esku dago baina argi dago aurrekontuak zerkusi handia duela, eta datuek adierazten digutenez, nafarren batez besteko aurrekontua 3.200€koa izaten ohi da.

Bidaiak aukeratzeko orduan, lehenik eta behin, lehentasunak argitu beharko dira eta argi eduki zer egin nahi duten egun horietan. Bidaiak lasaia, kultur bidaiak, urrutiko ohiturak eta lurraldeak ezagutu. Erabaki garrantzitsua da eta aurrekontuetara eta nahietara hobekien egokitzen dena aukeratu beharko da.

Aurrekontu ezberdinak daude, aukera ezberdinak daude. Gaur egun "minimoons" delako bidaiak asko ari dira areagotzen. 3 edo 4 egun, gertuko lekuetan, baina eskaintza osoa eta bereziki. Poltsikoak eta denborak ez du zertan bidaiak ahaztezin bat baldintzatu. Lekua erabaki baino lehen eguraldia eta urtaroa ere kontuan hartu behar dira, batez ere beste kontinente batera joateko orduan.

Denetan gustukoena Amerika izaten da. Nueva York eta Riviera Mayarekin egindako nahasketa. Los Angeles, Las Vegas eta San



Francisco triangelua ere nahiko bisitatua da. Horien ondoren, Peru, Argentina eta Costa Rica daude, Kuba ahaztu gabe, modan modan baitago.

Asian, Thailandia da helburuetako bat eta bere irlak, horren ondoren Bali eta Japonia daude.

Camboya eta Vietnam eskaera indartsuetako batzuk ere badira eta azken hilabeteetan Sri Lanka Maldivekin batera.

Afrikari dagokionez, jetsiera izan da nahiz eta Kenya eta Mauricio, azken hau, gustuko irla moduan ere aukeratu den.

Azken helburua, Ozeania, gutxien eskatzen dena da, prezioak oso garestiak direlako, nahiz eta ezkongai askoren amestetako bat Australia eta Zelanda Berria diren.

Ihesaldi azkarrak

Ezkont-bidaiak azkarrak egiteko

ohitura berria eta oso ezberdina da. Denbora eta diru faltak horrelako bidaiak azkarrak eskaintzera eraman ditu agentzia bidaiak. Bidaiak hauek 3-5 egunetakoak izaten dira, masajeak eta afari bereziak tartean daudelarik. Horrelakoetan Asturias, Galizia, Kantabria, Euskal Herria eta bestetik, Balear eta Kanariar irlak edota Europako hiriburuak, Paris, Brujas, Praga edo Erroma aukeratu dira.



HALCON
bidaiak

*Bidaiatzeaz
maitemindurik*

**SAN JUAN, 52
BAXUA
ALTSASU**

948 041 002
halcon60@halcon-viajes.es

maite zaituztegunak

12

**RAINOKO
DESKONTUA**

Ezkonberriak







Barrutik ere fin eta dotore

Bizitzako egunik berezienen ere, bai kanpotik bai barrutik ederra egoteko aukera paregabea izaten da ezkontzarena. Lentzeria dendentan ezkongaiaren unibertsorako sorkuntza handia dago eta

aukerak mila.

Kokaleku ezberdinetarako bularretakoak, tirantedunak, bodyak, kortseak, beharrezko guztia dotore egoteko, fin eta femeninoa agertzeko bizitzako egunik garrantzitsuenan.

Emaztegiaren soinekoetara maiztegiaren maiztegiak eta gorputza estalia itzuli dira, baina transparentziez, gardentasunez eta parpailiez beteta doaz, arintsunaren sententzia eman dezaten. Bordatuek eta enkajeek tatuajeen efektua lortzen dute, biluztasunaren irudipena areagotuz, kortsetak eta barruko arropa agerian uzten dira. Bestalde, emakumeen artean praktikak erabiltzea ere ohikoagoa bihurtu da.

Ezkontza batean isilpean gordetzen den sekretuetako bat, emaz-

tegiarena izaten da. Erabakia ongi hartu behar da, gauza guztietan bezala batzuetan argi izaten da nahi izaten dena eta beste batzuetan profesionalen aholkuak behar izaten dira.

Emakumezko eta gizonezko gehienek jantziak aukeratzean denboraldiko joerei erreferentzia dute.

Emakumezkoetan, joera oso sententziala eta ausarta ari da izaten, "palabra de honor" izenez ezagutzen den soinekoa pasarelatatik desagertzen ari den heinean

enkajeekin osatutako eskoteak ari dira gailentzen. Eta beste diseinatzailerik batzuk adibidez, apostua egin dute alkandora eta gonarekin lortzen den konbinaziora, diseinu berria eta abangoardista.

Gizonezkoetan aldiz, bai senar-gaiak bai gizonezko gonbidatuak joera berrietara egokitu dira eta ospakizuneko trajeak metal kolorekoak eta arrisku handiko estantatuak ari dira izaten. Aurten ere beltza kolorea ari da gailentzen baita zuria eta grisa ere.










www.aurkeneormazabal.com
659-341-391
650-284-446





Orrazkera, berezia baina nortasuna mantenduz



Itxurari ikutu berezia emateko orrazkera eta makilajea kontuan hartu beharrekoak dira. Egunerokotasunetik gehiegi alde egin gabe baina izaerari leial izanda lan egin beharko dute profesionalak. Kontuan hartzeak, aurpegiaren forma, adatsa, ilearen kolorea, norberaren izaera, jantziaren estiloa... orokorrean ileapaintzaile eta saltzailearen aholkuei erreparatu beharko zaie eta aurtengo joerak zeintzuk diren jakin. Txirikorda ezberdinak aurkituko ditugu, orrazkeren nahasketa, ile-bilduak eta honekin guztiarekin ere makilajea konbinatzen jakin behar da. Orrazkera, jantzia eta makilajearen arteko oreka mantentzen jakin behar da.

Ezkontzak Sakanan

Sakanan ezkontzak hiriburu-retain baino askoz informala-goak izaten dira eta joera erosten den arropa ondoren erabilgarria izatea da, hau da, helburua ondoren armairuan ez uztea da. Oreka jazkera on batean eta erabilpenean dago. Hau ez da erraza izaten askotan, jendeak ongi jantzita ikusi nahi duelako bere burua. Honen aurrean gaude gu, profesionalak, jazkera on bat aholkatu eta erosotasuna eskaintzea da gure helburuetako bat, gustuarekin eta praktikotasunarekin. Gure komertzioetan erostera animatu nahi zaitugu, erosotasunagatik.




Lore sortak, mila kolore eta aukera

Kolore eztanda proposatzen dugu, kolore biziko loreekin, lazo eta apaingarriekin osatu daitekena. Guztiaren gainetik, originaltasuna bilatzen da,

lore mota ezberdinez osatuta. Bada beste aukera bat, basoko loreekin osatu daitekena. Basalanda ere gero eta gehiago erabiltzen dira, neurri ezberdinetakoak eta horien

nahasketak emaitza ederrak ematen dizkigu. Lore-sortek ez dute zertan handiak izan behar, txikiak ere handitasuna transmititu dezakete horrelako egun berezi batean.



nueva imagen

peluquería ileapaindegia

948 467 074

San Juan 54 ALTSASU

estilistasnuevaimagen@hotmail.com

ML

maria luisa

www.mlmoda.com

948 562 396 948 562 254

Isidoro Melero, z/g

ALTSASU

LOREA ETK BELARDEA

lore

lore eta belardenda

948 46 74 26 | San Juan 52

685 72 21 12 | 31000 Altsasu

Zure eguna bereziago egingo dugu

www.floristerialorea.net

Tu dulce txoko

Ezkontza tartak

Dekorazioa puxiketkin

Mahai gozoak

Gozoki barra

Fotomatei zerbitzua

671 049 094

Etxarri Aranz

Zizur Nagusia

SAKANA



Iturmendin elkartuz ziren sakandarrak etziko deialdira hots egiteko. UTZITAKOIA

Eragileen Maiatzaren 1erako deia

Igandean, 18:00etan, Altsasuko plazan

Langileen Eguna dela eta, Sakanako hainbat eragilek eta kolektibok bat egin eta manifestazioa deitu dute etzirako. Orainak itozten gaituelako, Sakanako etorkizuna eraiki leloa du manifestazioak. Deitzaileek aurreratu dute, "Sakanan hainbat gai eta problematika jorratuko dituen manifestazioa izanen da" etziko.

Azaldu dutenez, "lan merkatuaren eta sistema zapaltzaile honen kontra gaudelako, langileprekarioak, langabetuak, pentsionistak, praktiketan musu-truk lan egiten duten ikasleak, euskaraz lan egiteko eskubidea aldarrikatzen dutenak, lan merkatuak mespretxatuak dituen emakumeak... kalera aterako gara gure haserrea adierazteko eta gure eskubideak aldarrikatzeko".

>>

Euskalgintzan ari direnen bilera

Larunbatean, 11:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean. Deialdia euskaraz bizi nahi duten guztiei zabalik dago

Sakanako Euskalgintzaren Bilguneak (SEB) bilera berria egingen du bihar, lastaitetik honako balantzea egin eta heldu diren erronkei buruz hitz egiteko. Udazkeneko bileran Sakanako euskaltzaleek elkarrekin landu zitzaizketen hainbat lanildo aztertu ondoren Osasun arloa euskalduntzen indarra egitea erabaki zuen, Etxarri Aranazko osasun etxeko zerbitzuak euskalduntzeko kanpainaren ildoari segituz. SEBeko talde eragileak plangintza eta hura garatzeko pausuak zirriborratzeko asmoa zuen.

Astelehenean urte bete egin zuen Nafarroako euskaltzaleek Iruñeako Anaitasuna kiroldegia bete zutela. Orduan euskararen aldeko aldaketa politikoa aldarrikatu eta hizkuntza normalizazioaren oinarriak nabarmendu ziren. Gobernua aldatu da eta euskararen aldeko hainbat neurri hartu



Nafar euskaltzaleek Anaitasuna bete zuten duela urte bete.

dira. Baina Euskararen Legeak hor jarraitzen du. Euskarazko gizarte erakundearen Kontseilutik azaldu dutenez, "duela urtebete desio genuen egoeran ez gaude. Oraindik ere urrats handiak gertatzen zaizkigula egiteko eta pauso horiek elkarrekin egin behar ditugulakoan gaude. Euskaraz bizi nahi dugun guztion indarra behar

du euskarak". Horregatik, "euskaraz bizi nahi duten herritar guztiei" garagartzaroaren 4an Iruñean izanen den manifestazioan parte hartzera deitu dituzte. "Euskarari bide ematen diogula erakutsi nahi dugu manifestazio horretan". SEBek Sakanan manifestazioaren deialdia zabaltzeko egin ditzakeen aztertuko ditu.

>> Bakaiku

146 bakaikuarrek babestu dute herri galdeketa

Hego Euskal Herriko beste hainbat herrietan bezala, Bakaikun ere herri galdeketa izanen da garagarrean. 300 bat bakaikuarrek izanen dute botoa emateko aukera eta haietatik 146 babestu dute dagoneko galdeketa. Sustatzaileek dienez, "sinadura kopuruak badu garrantzia, baina are garrantzia gehiago ematen diogu lortutako aniztasunari, sentsibilitate ezberdineko hainbat herritarrek eman baitiote sostengua kontsultari". Gaineratu dutenez, "herri kontsulta hau erronka handia da gureta eta, horregatik, galdeketa elkar-gune anitz, garden, parte-hartzaile eta zabala izatea nahi dugu".

Erabakitze eskubidea praktikan jartzeko sustatzaileek bakaikuarren parte-hartzea nahi dute,

galdeketa galdera erabakitzen, esaterako. Horretarako, hasteko, bakaikuar guztiei gutun bana bidaliko diete, inkesta bat izanen du barruan. Galdetegiarekin batera, galdeketa galdera proposatzeko aukera izanen du. Betetako inkestak herrian barna jarriko diren postontzietan uzteko aukera izanen dute.

Adosgunea

Izen hori du maiatzaren 7rako antolatu duten ekimenak eta han galdera adostuko dute. Aurretik talde sustatzaileak jasotako inkestak aztertuko dituzte; "erantzun horiek izanen baitira ekimen honen oinarria edo abiapuntua. Adostasunera derrigortua dagoen bilkura honetara bertaritzen



Bakaikuarrek inkestak betetzera eta Adosgunera joateko gonbidapena egiten.

garenguztion artean hartuko dugu azkeneko erabakia galderaren inguruan". Horregatik, bakaikua-

rrak inkestak betetzera eta Adosgunean parte-hartzera gonbidatu dituzte. "Herritar guztiak galdera-

Bazkaria, eta gehiago

Domekan maiatza jasoko dute bakaikuarrek eta egun horretarako ere erabakitze eskubidearen aldeko bazkaria izanen da. Girotzeko ekimen gehiago izanen dira: galdeketa aldeko kamisetak egin dituzte, galdeketa bitarteko larunbatetan pintxo potea izanen da, abesti bat grabatu berri dute eta harekin herrian bideo grabatuko dute, Aitzkozar kro-sean sari berezia izanen da, gau berezia kriseluekin...

rekin gustura gelditzea oinarriko eta ezinbestekotzat dugu, eta hori lortu ahal izateko parte-hartze zabala behar beharrezkoa da".

Ogiaren artisauek

PORTUKO okindegia

ETXARRIARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153

Arbizu

Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 · ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

» Irurtzun

Irurtzun euskaraz busti da

Tailerrekin, musikarekin, erraldoi eta buruhandien konpartsarekin, mitologiaren magiarekin eta euskaraz ikasteko aukerarekin bat egin zuten Sakana herri eskolekin sortzen-en festan. 2017an Lakuntzan izanen da.

Maialen Huarte Arano

Euri tantek busti zuten Irurtzungeko kolehen orduetan baina gero euskaraz jantzi zuen herria. Asko izan ziren euskaraz ikasteko aukerarekin bat egin eta goizean tailerretan parte hartu zuten neska-mutikoak. Txistorra egiten batzuk, frutekin hamaiketakoak prestatzen besteak, buztinarekin figurak sortzen edo elkarrekin jolasten pasa zuten eguna. Sakana herri eskolekin sortzen ari dela aldarrikatu zuten guztiek. Bailarako ikastetxe txikiak egin zuten bat Irurtzungeko plazan.

Hamaika joak zirela ekin zioten festari. Momentu aproposa gosariarekin ekiteko festari: Talok ez ziren faltatu eta musikak giro



Herri kirol erakustaldia.

tu zuen goiz osoa. Herri kirolak ere izan zuen tarte: harriak jasotzen eta bost metroko egurrezko zutoina izan ziren frontoian. Eguerdian iritsi zen jai handia: erraldoiek eta buruhandiek aztoratu zuten plaza eta ondoren, pertsonaia mitologikoen magia iritsi zen: Mari, Tartalo, Basajaun eta Basandere, Akerbeltz, Mikolasak,

Galtzagorriak... Trikuharri pisutsuak ere jarri zituzten plazaren erdian Jentilek. Eta Gizotsok haur guztiak izutu zituen bere kateen soinuez. Festa despeditzeko emateko Sakana herri eskolekin sortzen-erako prestatutako koreografia dantzatu zuten haur, gazte, guraso, irakasle eta Irurtzunera hurbildu ziren guztiek.

» Altsasu

Ikurrina jartzeko debekua aztertzeke batzar irekia

Gaur, 19:00etan, Gure Etxea eraikinean

Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak joan den astean berretsi zuen San Juan eta Zelai kaleen arteko kaleen bidegurutzean dauden mastetan ikurrina jartzeko debekua. Geure Ikurren Alde taldeak jarri zuen, Altsasuko eta Nafarroako banderarekin batera, 2014ko otsailaren 23an. Orduko Nafarroako

Gobernuak ikurrinaren kontra egin zuen eta orain iritsi da epaia. Auzitegiek ikurrina "Nafarroako eremuan debekatzen duen" epaiaren aurrean, Geure Ikurren Alde taldeak "gure sinboloen kontrako era honetako erasoak ez ditugula onartuko" adierazi du. Aldi berean, "gure identitatearen aldeko defentsan berresten dugu gure burua". Epaia "inposaketatzat" jo



du eta hari "herri erantzuna" emateko gaur eginen den batzar irekira gonbidatu dituzte altsasuarrak. "Bertan gure ikurren zein identitatearen defentsarako emango ditugun urratsak definituko ditugu".

» Etxarri Aranatz

Hilean behin auzolana Enneco parkean

Hilabeteko azken larunbatetan eginen diren auzolanetan parte hartzeko deialdia egin diete etxarriarrei

Bihartik aurrera hilabeteko azken larunbatetan auzolanak eginen dira Enneco, haritzaren memoria parkean. Hura sustatzen duen Nafarroa Bizirik fundazioak auzolan horietan parte hartzerantz animatzeko deialdia egin die etxarriar guztiei; "guztien artean gure historia ahots propioarekin kontatuko duen eta nafar guztion elkargune izanen den Enneco egitasmoa aurrera atera dadin". Auzolanak 9:00etatik 13:00etara izanen dira, parkean bertan. Joan nahidutenean, aurretik fundazioaren 663 908 306 telefonora hots egiteko eskatu dute. Auzolanerako eskularruak, botak eta gosaria eramatea beharrezkoa izanen da.



» Etxarri Aranatz



Jendetza Ama Lurra azokan

Etxarri Aranatzaren bildutakoek Sakanako ekoizleen produktuak dastatu eta erosteko aukera izan zuten

Bosgarren urtea da Belardi elkarrekin biltzen diren Sakanako abeltzainek, nekazariak eta ekoizleak Etxarri Aranatzeko azoka antolatzen dutela, Etxarri Aranatzeko Udalararen laguntzarekin. Igandean ospatu zen Ama Lurra azoka, eta espero baina jende askoz ere gehiago bildu zen bertara. Belardiko ekoizleek euren produktuak jarri zituzten eta bertan lehen sektoreko produktu sakandarrak -gazta, ardoa, ogia,

haragia, kosmetika produktuak eta beste- dastatu eta zuzenean erosteko aukera izan zen, herritarren eta ekoizleen zuzeneko harremana sustatuz. Horretaz gain, abeltzainek bere abeltzurik onenak ekarri zituzten azokara: ardiak, txerriak, behiak, astoak, behorrak... Primerako giroa izan zen eta bertaratuak unean bertan erretako Euskal Txerria etxeko pintxoak dastatzeko aukera izan zuten ere. Antolatzaileak eta bisitariak, guztiak pozik azaldu ziren azokak izandako erantzunarekin.

» Altsasu



Sunsundegui klinikarekin

Sunsundegui enpresak korporazioaren gizarte ardura proiektua martxan jarri du, Felipe Lezea fundazioarekin eta Josefina Arregui klinikarekin aurrera eramane duena. Martxan jarritako proiektu horren arabera, Sunsundegui konpromisoa hartu du bere gogo betetze inkestak erantzuten duen pertsona bakoitzeko klinikari bost euro ematea. Enpresak bere bezeroen artean inkestak betetzera gonbidatu ditu, demenzia duten pertsonak eta haien familiak laguntzeko proiektu bat babesteko dutela jakinaraziz.

Klinika psikogeriatrikoari laguntzeko bide hori enpresaren marketing departamentuaren ekimena izan da. Klinikaren egindako bilera baten ostean sortu zen ekimen altruista hau. Bilera horretan Miguel Sanz marketing-eko nagusia, Klinikako lagunen presidentea Patxi Goikoetxea eta klinikako gizarte langilea Iosune Lopez de Goikoetxea izan ziren. Klinikako ordezkariak Sunsundegui bere esker ona azaldu diote, "horrelako ekintzei esker, egindako lanagatik, klinikari esker ona adierazten baitio".

» Arakil

Arakildarrak Oskian hitzartuak

Maiatzaren batarekin, ohi denez, arakildarrek Oskiako ermitarako erromesaldia eginen dute. Igandean, gainera, Aralarko aingueraren irudia izanen dute lagun. San Migelen irudi ibiltariak Arakilen barnako ibilbidea Satrustegin abiatuko du, 9:00etan. Zuhatzun 9:15ean izanen da eta Ekain, 9:30ean. 9:55ean Etxarren haren zain izanen dira. Handik Aralarko aingueraren irudiak Urriaz joko du, 10:20an iristeko. Izurdiagan 10:45ean izanen da eta handik Errotzera joanen da, 11:10ean. Ibar guztiko herritarren babesarekin Errotziko Oskiarantz 11:40ean abiatuko dira. Behin harrateko ermitan, eguerdian meza izanen da. Arakilgo Udalak, bestalde, jakinarazi du aurten nekazarien eguna, San Isidro, maiatzaren 14an, larunbatetan ospatuko dela, bezperan. Ibarreko hildakoen aldeko elizkizuna 12:00etan izanen da Egiazretako Itxasperi ermitan. Ondoren, bildutakoendako otamena eskainiko du udalak.

» Olatzagutia

La Vasco-Navarra Alimentaria azokan

Elikagaien eta edarien Bartzelonako nazioarteko azoka, Alimentaria, astelehenean zabaldu zituen ateak eta atzo itxi zituen. Euren produktuak 70 herrialdeetako 4.000 enpresak erakutsi dituzte. Horien artean dago Olatzagutiko La Vasco-Navarra esneki enpresa, nazioartean antolatzen den sektoreko hitzordu garrantzitsuenetakoa galdu nahi izan ez duena.

» Altsasu

Garraxi festa

Larunbatean, 21:00etatik aurrera, gaztetxean

Garraxi Irratiak (FM 101,9), Altsasuko irrati libreak festa antolatu du biharko. 21:00etan irratiko kideak eta lagunak afaltzera elkartuko dira. Ondoren, 21:30ean Txof zirkoaren ikuskizunarekin gozatzeko aukera izanen da. Belarri motza sound systemak reggae eta skadoinuekin dantzarako ermitoak jarriko ditu 22:30etik aurrera. Eta gauerdiekin batera disko jartzaileen txanda iritsiko da, Txen, Aitor eta Lokesea. Altsasuko gaztetxetik emititzen duen irrati libreak, Garraxi Irratiak (FM 101,9), zuzeneko sei saio ditu. Astelehenean ekologiarekin lotutako albisteak lantzen dituen Saltsa berde saioa entzun daiteke, 20:00etatik 21:00etara. Asteartean Belarri motza sound systemaren saioa dago, 18:00etatik 20:00etara. Orduetegi berean, baina asteazkenetan, El saco del brujo saioaren txanda da. Etahura bukatu ondoren, 20:00etatik 22:00etara, El pan y las rosas. Ostegunetan Orain dator onena saioa entzuteko aukera dago, 20:00etatik 21:00etara. Ostiraletan, 20:00etatik gauerdia arte, etagehiago, Chckpoint saioaren txanda da. Gainera, larunbatetan Amanecer drogradopodcast entzuteko aukera dago, 13:00etatik 15:00etara.

Saio horien berremisioak emanaldien hurrengo egunean entzuteko aukera dago. Baina ez dira bakarrak: Euskalerrria, Hala Bedi, Eguzki, Info 7, Burbuja, Guiniguada, Ela, Urcm, Zintzilik, Vallekas, Klara, Irola, Topo edota Beleixe irratiaren saioen berremisioak ere entzunga daude asteazkenetan. Gainera, orduak puntuan baino bi minutu lehenago, hainbat web orri-tako titularren irakurketa automatikoz osatutako Garraxiko albistegia entzungai izaten da.

SAKANA

Parlamentuak ibarreko merkataritza babestu du

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Garapen Batzordeak aho batez ebazpena onartu du Nafarroako Gobernuari eskaera jakina eginez: Sakanako dendari txikiekin, erakundeekin eta lotura duten agenteekin lan mahaia osatu dezala. PPK eraman zuten eskaera batzordera. Eskera horrekin batera, onartu zen gobernuari beste eskaera egin zion Parlamentuak: Sakanako denda txikiei bulkada emanen dioten politikak dioten sustapen plana diseinatzeko. Aldi berean, gobernuak Sakanako turismoa sustatzeko eta sakandarrek denda txikiek duten garrantzia jabetzeko kanpainak egitea eskatzen zaio gobernuari. Sakanako Plan Estrategikoaren (SPE) barruan turismoa eta merkataritza sustatzeko ekintzak aurreikusiak daude. Ibarrean bertan adostuak, behetik gora. PPK goitik beherako, Gobernutik Sakanarako proposamena eraman zuten asteartean. Horregatik, Geroa Baik popularren idatziari puntu bat gehitzeko eskatu zuen eta hala onartu zen. Koalizioaren eskariz, Nafarroako Gobernuak aurreko guztia SPEn jasotakoarekin koordinazioan egingen du, udalekin, Mank-ekin eta dauden elkarteekin elkarlanean. Nafarroako turismo eta merkataritza plan estrategikoak egitean aterakodiren ondorioak ere kontuan hartu dira. PPK bere ekimena argudiatu zuen Sakanako denda txikien egoera "delikatua" delako eta "ibarreko kolektiboek eskatzen duten moduan premiazko plana garatzea beharrezkoa delako".

Irurtzun

Osasun etxeko ambulantiendako sarbidea egokitu da

Hala erabaki dute irurtzundarrek parte-hartze aurrekontuen bidez eta udalari proiektua egiteko eskatuko diote

Parte-hartze aurrekontuen bidez irurtzundarrek udalaren 35.000 euroko diru saila zein proiektutara bideratu erabaki dute. Bost aukeren artean osasun etxeko ambulantiendako sarbidea egokitzera bideratu du udalak dirua. Teknikariek esanzen dute nola, baina ambulantiendako edo larrialdiekin joaten diren autoendako geldigunea handituko da. Horrela, ambulantiak atzeraka egin gabe sartu eta ateratzeko aukera izanen dute. Hau da, Lizarrakaletik sartu eta aparkalekutatik aterata. Honako lanak aurreikusitakoak dira: osasun etxeko estalpea handitzea eta eskailerak arranpa batengatik ordezkatzeko.

Parte-hartze aurrekontuen tal-



Andrea osasun etxera sartzen. ARTXIBOA

deak irurtzundarrek eta hainbat erakunderekin bilerak egin ondoren bost proiektu babesteko aukera eman zuten. Apirilaren 2tik 10era bitartean 534 boto jaso zituzten eta babes gehien, 200 boto, osasun etxeko lanak izan zuten. Plazako zorua eta harmailak konpon-

tzearen aldeko 104 boto izan ziren. Kiroldegian etorkizunean gimnasioa egokitzeko espazio bat egiteko lanak eta San Martin jubilatutako elkarteko leihoak aldatzeko proposamenek 78na boto jaso zituzten. Azkenik, paseatzeko leku eta bideen planaren alde 60k egin zuten.

Aurreko urteetako aukerak

2011 Bi Aizpetako bidexka konpondu zen.
2012 Espaloiei errespetua. Seinaleei errespetua proiektua garatu zen.
2013 Igerilekuko azpiegiturak hobetu ziren.
2014 Atakondoa eskolako aldagelak berritu.
2015 Barazkiguneko karpa.
2016 Osasun etxeko ambulantiendako sarbidea egokitzea.

50 proposamen

Bost proiektuetako baten alde botoa ematearekin batera irurtzundarrek herria hobetzeko proposamenak egin zituzketen ere. 50 jaso dira eta haien aukeraketa egin ondoren batzuk 2017ko prozesuan izanen dira. Kostu gutxiko proposamenak udalak urtean zehar egingen ditu.

Arruazu

Argiteria berrituta, ezer gutxirako emanen du aurrekontuak

Arruazuko zeharbidea 2013an konpondu eta herriaren esku gelditu zen. Makinak herrian zeudela baliatuta kioskoa egin zen. Hura zenbait urtetan ordaintzen aritu dira. Lan haiekin ere argiteria publikoa aldatu zen. Pello Betelu Ganboa alkateak azaldu digunez, "herri erdian led-ekin argitzen duten farolak jarri ziren. Hurrengo urteetan herriko beste farolak led-dunak izateko inbertsioa egin

dugu". Joan den urtean, esaterako, 19.877 euro.

Alkateak azaldu digunez, zeharbideko lanen ondoren ordaindu beharrekoak eta "dauden diru-sarrerak txikiak izatean, aurten ez da inbertsiorik egitea aurreikusitena. Aurten behintzat betikoa egingen dugu, dagoena mantentzea". Basoan itxiturak eta beste-lako lanak egiteko diru-laguntza eskaera eginga du udalak. Joan

den urtean horretara 726,07 euro bideratu zituen. Pinudi batetik egurra ateratzeko asmoa ere badu. Dermioko bide batzuk konpontzeko premia dutela azaldu digu: "neguan azienda, traktoreak eta kamioiak ibili dira, baina konponketak itxaron egin beharko du". Aurtengo aurrekontua joan den urtekoaren antzekoa izanen dela azaldu digu Beteluk, 90.000 euro ingurukoa.



Festetan dantzan. ARTXIBOA

Hiriberri / Arbizu / Etxarri Aranatz / Urdiain

Kalitatezko turismoarekin konprometituta

Hiriberriko Martinberrika alojamendu-etxea, Arbizuko eta Etxarri Aranatzko kanpinak eta Urdiaingo Kaluxa jatetxeak Turismo Kalitate Konpromisoa berritu dute. Ziga ostiralean egingako ekitaldian izan zen. Sakanako lau establezimendu horien

moduan Nafarroako Mendialdeko beste 74k dute ziurtagiri hori. Zigilu hori izateak berritzearekin batera turismo kalitate sistema ere berritu dute, praktika onen eskuliburua bere egitea ekartzen duena. Ekitaldian Maitena Ezkutari Turismo eta Mer-

kataritza zuzendari nagusia izan zen eta establezimenduek egingandako lana eskertu zuen, "etengabe bezero guztien aurreikuspenak eta beharrak gaintitzeagatik. Turistak eramaten duen tokiaren eta lurraldearen irudia zarete".



Turismo kalitate ziurtagiria estreinakoz jaso eta berritu zutenak Zigan.

Ostiralero

SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astleheneretik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Sakanako Plan Estrategikoari buruzko iritzia
- Joxe Aldasoro, auzipetua

www.guaixe.eus-en ON LINE

>> Bakaiku

Ez bustitzeko, zubia

Behoko basotik pasieran Iturmen-dirajoateko, Aizkibelgo erreka pasa beharra dago. Eta bustitzeko aukera zegoen, batez ere urak handi zirenean. Halakorik ez da gertatuko dagoeneko. Pasa den ostegunean, bakaikuarrek auzolanean zubia jarri zuten erreka gainean. Herriko lan-tegi bateko materiala berrerabili dute horretarako. Oinezkoendako zubia da Aizkibel inguruan jarri dena.

>> Altsasu

Etixerako egur loteak eskatzeko garaia

Altsasuko Udalak bando bidez jakinarazi duenez, dagoeneko etxerako egur lotea eskatzeko epea maiztaren 6a baino lehen egin behar da. Familia unitate bakoitzak eskera bakarria egin dezake eta eskabideak udal bulegoetan aurkeztu beharko dira. Udalak jakinarazi duenez, 4.000 kilo inguruko loteak dira Baxoitxin markatu direnak. Guztira 150 bat lote markatu ditu udalak. Guztietan zuhaitzak zutik daude. Loteak 20 euroko tasazioa du. Herri-lurren aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzen arabera, honako baldintzak bete beharko dituzte eskatzaileek: adinez nagusia izatea, edo bere kontu bizi den nahiz judizialki gaituta dagoen adin txikikoa izatea; udal erroldan bizi-lagun gisa inskribatua egotea hiru urteko antzinatasunarekin, Altsasun urtean bederatz hilairetz gutxienez egiazki eta jarraian bizitzea, Altsasuko Udalarekiko zerga bete-beharrak egunean izatea eta aurretik ordenantza ez betetzeagatik aprobetxamendua galdu ez izana.

>> Olatzagutia



Begiraleak eta gazteak jolasean.

Udan Euskaraz kanpainarako izen ematea zabalik

Olatzagutiako Udalak jakinarazi duenez, maiatzaren 6ra arte dago Udan Euskaraz kanpainarako izena emateko epea zabalik. Haien seme-alaben izen ematea egin nahi duten gurasoek 012 edo 948012012 telefonoetara hots egin dezakete. Udan Euskaraz aisialdi programa garagarria akabera eta garila erdialdea bitartean izaten da, astegunetan, goizez. Aisia eskaintzak haurren artean euskara praktikatzeko bitarteko izan nahi du.

Aita Barandiaran adinduen erresidentziak 25 urte

Aita Barandiaran erresidentzia, 25 urteko zaintze lana

Larunbatean 25 urte beteko dira Altsasuko Aita Barandiaran adinduen erresidentzia mustu zutela. Udal eta foru hauteskundetarako hilabete falta zen eta agintariak izan ziren ekitaldian. Klinikari lehen adindua garagarriaren 6an sartu zen, Juan Mari Mintegi Mintegi altsasuarra. Ordutik Altsasuko egoitzak 256 erabiltzaile izan ditu. Haietako hiru hasieratik daude. Erabiltzaile gehienak emakumezkoak izan dira. Gaur egun ere hala da, 42etatik 27 emakumezkoak baitira. Urteurrenagatik ez da ekitaldi berezirik aurreikusit. Baina aitzakia horrekin egoitza pixka bat gehiago ezagutuko dugu.

M^a Eugenia Martinez de Goñi Perez da Aita Barandiaran adinduen erresidentziako gerentea. Zerbitzuaren berri emateko lekuko ezin hobea da, hasieratik baitago han lanean. 1991ko martxoaren lehen hasi zen lanean. “Lanak despeditu berri zeuden. Garbiketa orokorra falta zen. Igogailuak berrikustea pasa gabe zeuden. Gauzatxoak falta ziren”. Ordurako udalak egoitzaren izena erabakia zuen.

Bere aurreneko egitekoak azpiegiturak gainbegiratzea eta falta zena ikustea izan zen. Horrekin batera, langileak aukeratzeko prozesua abian jarri zuen. “Zeretik hasi ginen”. Mtz de Goñik azaldu duenez, lan eginez ikasi du, “erabiltzaileek beraiek gauza asko irakasten dizkizute”.

42 plaza

10 logela bikoitz eta 22 ohe bakarreko daude. Guztiek komuna, txirrina (gelan eta komunean), telebistarako hartunea, telefonorako hartunea (ez da erabiltzen haririk gabeko telefonoak erabiltzen dituztelako). “Mugikorra duenik ere bada, eta hori berritasuna da. Batzuek ere “motorra” dute. Asko modernizatzen ari da”.

Egun egoitzan daudenetatik bost euren kabuz moldatzen dira. Gainontzeko 37k dependentzia dute eta, neurri handian edo txikian, ohiko zereginetarako laguntza behar izaten dute. 42 plazetatik Nafarroako Gobernuarekin 36 kontzertatuta daude; 34 laguntza behar dutenendako eta bi behar ez dutenendako. Gainontzeko sei plazak Aita Barandiaran patrona-

“Dependentzia Legeak senideak etxean izateko baliabideak eskaintzen ditu. Ondorioz erresidentzian giroa galdu da; gaur egun egoitzan dauden pertsonen dependentzia maila handiagoa dute. Ezin dute berdin parte hartu”

tuarenak dira, “pribatuak”. Azken horietan, gaur egun, laguntza behar duten hiru pertsona eta behar ez duten beste hiru daude.

Nafarroako Gobernuarekin garai batean egiten ziren kontzertuetan egoitzan zeudenen dependentzia maila (txikia, ertaina, handia) kontuan hartzen zen. Orain kontzertuan laguntza behar duten eta behar ez duten artean bereizten da soilik. “Hori bai, mailaren arabera, haiek prezioa ezberdintzen dute. Baina egoitzarendako, berdin da.”

Dauden pertsonen arabera langileendako lan bolumena handiagoa edo txikiagoa izanena da, “dependentzia mailaz aparte, haiek zaintzaileei eman diezaieketen laguntzaren arabera da. Dena egin beharreko pertsona bat egon daiteke. Edo

Mustutze ekitaldiaz

1991ko apirilaren 30ko, 12:00etan, mustu zen Aita Barandiaran adinduen egoitza. Ekitaldian hainbat agintari izan ziren: Gabriel Urralburu (Nafarroako presidentea), Maximo Esteban (Lan eta Ongizate kontseilaria), Javier Monzon (Ongizate Zerbitzuko kudeatzailea), Joaquin Ilundain (Laneko zuzendari nagusia), Migel Anjel Zubiria (Urdiaingo alkatea), Javier Baztarrrika (Olatzagutiako alkatea) eta Jose Etxaniz (Ziordiko alkatea). Mustutze ekitaldian Emilio Boulanger Altsasuko alkatea hartu zuen hitza eta antropologoaren iloba Luis Barandiarani plaka bat eman zion. Ondoren, Maite Llana, PSNko zinegotzia eta patronatuko presidentearen eta Urralbururen artean mustutze ekitaldia oroitarazten zuen plaka agerian utzi zuten.

Mtz de Goñik gogora ekarri duenez, mustutzean San Juan kaleko etxebizitzetaz aparte, egoitza eraikin bakarrez inguru hartan. Pareansoroak zituen eta ez zegoen biderik. “Soroak zirela eta, herriaren eta egoitzaren artean hesi moduko bat zegoen”. Gaur egun egoitzako sarrera nagusia Idertzagain kalean dago. Baina mustutze ekitaldian ez zegoen kalerik. Ateparekolurra jabe batena zen. “Gaur egun espaloia dagoen tokian zatitxo

bat asfaltatu zen mustutze heldu ziren ibilgailu ofizialak sartu ahal izateko”. Ondoren urbanizatu eta etxebizitzak eraiki dira, “inguru atsegina da”.

Gaur egun, herrian bertan txertatuta dago egoitza. “Jende askok pasiatzen du hemen eta, gainera, parean primeran heldu zaigun kafetegia bat zabaldu behar dute”. Halako zerbitzuak egoitzan dauden pertsonen senideendako ona dela dio. Baita adinduen dako. “Senideekin pasieran Zumalakarregi plazaraino joatea ezinezkoa zaie askori, baina bertan izanda, ez”.

Inbertsioa

Altsasuko egoitza egiteko Nafarroako Gobernuak Lan eta Ongizate Departamentuak 231.895.021 pezetako (1.393.717,146 euro) inbertsioa egin zuen. Eraikina Nafarroako Gobernuarena da eta hurajatzeko udalak lurrak eman zituen. Lanak 1989an hasi ziren, Miguel Ayala arkitektoaren zuzendaritzapean. Mustutzezakoan azaldu zuten, 113.739.857 pezetako (683.590,308 euro) inbertsioa eginez gero, eraikina iparraldetik handitzeko aukera zegoen. Handitze horrek jubilatuen kluba, ikusentzunezko gela, kafetegia, liburutegia eta ohe bakarreko eta bi oheko bosna gela gehiago aurre-

kusten zituen (15 plaza gehiago). “Pareta hori isolatu gabe gelditu zen, egoitza handitzea aurreikusit zelako. Gobernuak aldatu zen, ideiak aldatu ziren eta ez zen egoitza handitu. Ez dut uste handitzeko gaiari heltzeko inolako asmorik dagoenik. Zerbitzua handituko genuke eta lanpostuak sortuko liriteke”. Isolatu gabe dagoen alde horretan hotz handiagoa nabari da eta berogailuak lan gehiago egin behar izaten du. “Udan hobeki egoten da”.

25 urte hauetan ikuzgailu guztiak berri dira, igogailuak modernizatu ziren, ohe guztiak elektrikoak dira, teilatuko odorretan hezetasun arazoak konpondu ziren, lorategia egin zen... “Azken urteetan ez da lanik egin, baina pixkanaka egin beharra dago”. Hurrengoruteetan hainbat lan egingen dira: “hasteko terrazak konponduko dira, itajurak eragozteko”. Leihatuek eta sarrerako leiho atek aldatuko dira, haietatik bero asko joaten delako.

Nafarroako Gobernuaren kontzertutik jasotzen den diruarekin, patronatuko gelen erabiltzaileek ordaintzen dutenarekin eta Altsasuko Udalak urtero jartzen duen diru-sailarekin berdintzen da erresidentziaren aurrekontua. Gastro nomia elkarrekin urtero dirua ematen diote erresidentziari.

Bisitak eta programak

Gabon gauaren aurretik Altsasuko elkarrekin txaranga-ekin joaten dira egoitzako giroa alaitzera. Urtero ez du hutsik egiten Trasteandok, Erkudengo Ama abesbatzak eta jubilatuko elkarrekin abesbatzak. “Musikadenguztia, gogoko dute”. Herriko antzerki taldeak ere izan dituzte. Mtz de Goñik esan duenez, “etorri nahi duen guztiak atek zabalik ditu. Telefonoz hots egin, besterik ez du egin behar”. Emanaldien ondorengo solasaldiek “herritarrak egoitzaren errealitate asko hurbiltzen ditu. Jendeak beldurra galtzen dio, oso une ederrak bizi direlako”.

Aurten dagoeneko bi musika saio izan dituzte. Nilsaren bidez uraren memoria tailerra izan zuten eta “erantzun ederra eman zuten egoitzakoek”. Estreina-koz, maiatzean, hirutan, Bocalan Biak Bat fundazioak terapia txakurrekin izanen dira. Berriki Caixako langileak boluntario lana egiten egon dira, enpresak hala eskatuta. “Hiru egunetan hainbat langile okupazio fisioterapeutarekin batera arituko dira, haiekin aktibitateak egiten”. Kudeatzaileak dio “baliabidea ezagutu beharra dagoela. Atera ezin direnak asko eskertzen dituzte kanpokoen bisitak edo antolatzen diren jarduerak”.

Aita Barandiaran adinduen erresidentziak 25 urte

laguntza eman dezaketenak une batez zutik egonik, beso bat jasoz... Lan karga asko aldatzen da”, aitortu du Mtz de Goñik.

Dependentziaren arazoak zein dira? “Azken urteetan demetziaren igoera nabaritu dugu. Lehen, agian, gorpildun aulkian sartzen ziren, baina burua ongi zuten. Demetzia oso garatuak dituzten pertsonei ia denean lagundu behar zaie, jaterakoan, oheratzerakoan, altxatzerakoan...” Urteekin egoitzako erabiltzaileen sarrerako adinak gora egin du, batzuek 80 urtetik gorakoa da. “Zabaldu zenean 65-67 urterekin sartu ziren. Erresidentzia zabaldu zenean zerbitzu hau behar zuten eskualdeko pertsona askoren beharrak bete ziren. Hala, korrik ez zuten herrian eta kanpora ere ez zuten joan nahi”.

Aita Barandiaraneko langileek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin, osasun etxearekin eta Josefina Arregi klinikarekin hartu-emanen daude. Esaterako, norbait egoitzan bada go eta familiak klinikako kanpo kontsultara joan ezin badu, erresidentziako norbait joaten da kontsultara. “Astegunetan guk erizain bat dugu, gaixoen medikua osasun etxekoa da”.

Beharra

Aita Barandiaran adinduen erresidentziak behar bati erantzun zion. Mtz de Goñik argi dio: “aurretik ez zegoen ezer eta bakarrik egoten segitzen dugu. Hemen plaza-rik ez dagoenean bertakoak, nagusiki, Eulatera edo Lizarrara joaten dira. Biak primerakoak dira”. Baina, “arazoa, senideendako distantzia” dela azaldu digu. Kontzertatutako plaza bat lortzen badute, Nafarroako Gobernuari plaza hutsa dagoenean Altsasura lekualdatzeko eskaera egin diezaiokete. “Eulate eta Lizarratik hona lekualdatze asko dago”.



Aita Barandiaran adinduen egoitzako lan taldeko kide batzuk, atzo.

Adinduen erresidentzia batean plaza kontzertatua lortzeko eskaera Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko mankomunitateetako edo osasun etxeetako gizarte langileen bidez egiten da. Bi zerbitzu horiek elkarrekin koordinatuta daude. Eskabidearekin batera dependentziaren balorazioa egitea eskatzen da, gizarte-txostena eta hainbat datu aurkezten dira. Nafarroako Gobernuak, baremo baten arabera, pun-

tuazio batematendioskaera bakoitzari. “Puntuazio horrek pixka bat despistatzen du. Zerrendan lehena izan zaitzake, baina, esaterako, gizonetako zara eta hutsik gelditu den plaza emakumezkoen gela bikoitz batean bada go, plazara hori ez da zuretako izanen”.

Mtz de Goñik argitu digunez, patronatuko gela “pribatuen” itxaron zerrenda “oso gutxi mugitzen da. Bermatutako gela bat lortzeko nahikoa dependentzia ez dute, osasunez hobeki daude eta denbora luzez egoten dira. Hemengo zoritxarra da plaza bat hutsik gelditzeko norbait hil egin behar duela. Ongi nago eta nire etxera noa.

Holakorik ez dago”. Zenbaiten osasunak hobera egiten badu ere, kudeatzaileak zehaztu digu etxean bakarrik egoteko adina autonomia ez dutela berreskuratzen.

Plaza bat hutsik gelditzen den bakoitzean kudeatzailea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin harremanetan jartzen da: “haiek dira pertsona horiek nola dauden dakitenak, pertsona jarraipena egin dietenak, etxean artatu dituztelako, beste egoitza baterako eskaera egin dutelako... Orduan itxaron zerrenda aztertu eta lehentasuna zein duen erabakitzen da”.

Patronatuaren sei geletan altsa-

suarrek lehentasuna dute. Egoitzetako gainontzeko plazak nafar guztiendako dira. “Egia da, gobernu saiatzen dela pertsona bere inguruan mantentzen. Premiazkoa ez bada, altsasuar bat ez du San Adriana bidaliko. Eta hala eginez gero, lekualdatzeko garaian hori kontuan izanen dute”. Gobernuak ez du nahia adinduek erroak galtzea edo familiak eta lagunak hura bisitatu ezinik egotea. “Norabait joateko goiza edo arratsaldea hartu behar dituzu. Hemen bada go, edozein momentu bisitatu dezakezu”.

Baliabideez

Populazioaren adina gora doa. Mtz de Goñik ez daki “Nafarroako Gobernuak zein eskaera kopurua duen; ez dakit, orokorrean behar guztiak betetzen ari ote garen”. Garaiak daudela aitortu du eta batzuetan informazio eske dei asko jasotzen ditu. “Batzuetan oporrak hasi aurreko garaiak dira, jendea itoa dago. Beste batzuetan, kasualitatez, aldi berean asko gaizkitu egiten dira eta familiaren egoera zaildu egin da”. Beste erresidentzia batzuetan, krisiak eragindako familia egoera larriengatik, egoitzetatik senideak atera behar izan dituzten familiak egon dira. “Lehen lana zutelako, ezin zituzten zaindu. Lanik gabe, bai. Gainera, familia haietako askok pentsio hori dute diru sarrera bakarra”.

Gerenteak Josefina Arregi klinikak Sakanari eskaintzen dion zerbitzua nabarmendu du: “oxigeno-baloia da. Erabiltzaileendako onuragarria da eta haiek zaintzen dituzten familiei lan karga handia kentzen die. Haurtzaindegiak bezala, ezinbesteko zerbitzuak dira”.

Erresidentziako egun bat

Gaueko txandako langileek 22:00etatik 7:00etara lan egiten dute. 7:00etan hiru zaintzaile sartzen dira. Komunak garbitzen eta jendea altxatzen hasten dira. Beste bi zaintzaile 8:00etan sartzen dira. 9:30erako denak altxatuta eta garbituta daude, gosaltzeko prest. Ondoren, asteko lau egunetan fisioterapeuta bat etortzen da eta txandaka gimnasia eramaten

ditu. Bakarkako edo taldekako tratamenduak egiten ditu. Goizean, haien premiei erantzuten dieten bi zaintzaile daude. 12:00etan laguntza gehien behar dutenen bazkari garaia da. Eta bazkaldu ahalia siestara joaten dira edo, postura aldatzeko gorpildun aulkitik sofa batera aldatzen dituzte. Gai nontzekoek 13:00etan bazkaltzen dute. Ondoren, siesta egin, telebista ikusi... 16:00etan edo 16:30ean, merienda. Astelehen, asteazken eta ostegunetan oku-

pazio-terapeuta etortzen da. Afariak 19:00etan eta 20:00etan. Ez dago bisita ordutegirik. “Jendea nahi duenean etor daiteke. Eskatzen dugun bakarra da bazkari-afari eta lo orduak errespetatzea. Baita fisioterapeutarekin eta okupazio-terapeutarekin ordutegietan ados jartzea”. Bisita gehienak 17:00etatik 19:00etara izaten dira. Ostiral goizetan Sebastian Uhalde apaizak meza ematen du. “Elizkizuna baino, gizarte aktoa bihurtzen da kaleko jende asko etortzen delako”.

26 langile

Goizean 5 zaintzaile, 4 arratsaldean eta 2 gauean. 11 dira, baina atsedendialdiak kontua izan behar direnez 14 zaintzaile daude. Astelehenetik larunbatera, 7:00etatik 10:00etara, langile bat egoten da. Lanaldi murritzua duten bi langile daude. Asteburuko bi langile. Erizaina. Mantentze arduraduna. Kudeatzailea. Hori da erresidentziako plantilla. Sukalde eta garbiketa zerbitzuak azpikontratatuak daude, bina langile

zerbitzu bakoitzean. “Plantilla egonkorra da eta ordezkapen guztiak betetzen dira, mantentze-arena eta nirea ezik”. Nahikoa langile? “Gobernuaren ratioen arabera, bai. Baina badaude egunak ezin iritsi gaudenak. Artatu beharreko pertsonen arabera da hori”. Bestalde, Goierriko eskolarekin elkarlanean hasi dira eta han erakundeetan arreta soziosanitarioa ikasten ari diren bi altsasuar praktikak egoitzan egiten ari dira. “Pozik daude, eta gurean laguntza ongi etorria da”.

Banaketa

- 1. solairua:** sukalde, ikuztegia, berogailua, makinak, gimnasioa, okupazio-terapiarako gela, ile-apaindegia, beilategia, aldagelak.
- 2. solairua:** ezkaratza, bisitendako komunak, jangela, gela txiki bat, erabilera anitzeko gela (kapera, ekitaldi areto eta telebista gela funtzioak betetzen ditu) eta logelak.
- 3. solairua:** ezkaratza, 8 logela bikoitz eta ohe bakarreko 10 logela, muturretan egongela bana, erizainaren bulegoa eta kontrola.



www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsaldez zabalik

maríaeugenia
Arrainak

Lortu deskontuak gure txartelarekin!

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

« FRANTSESA

Udako intentsioak eta maila guztiak

EOLERAKO prestakuntza

AHALEGIN

672 162 036
aahalegin@yahoo.es

Plana, sinadura, eta segi aurrera!



Sakanako hainbat hautetsi sinadura ekitaldiko lekukoak izan ziren.

Sakanako Plan Estrategikorako finantzaketa hitzarmena sinatu zuten Nafarroako Gobernuak eta Sakanako Mankomunitateak asteartean. Sakanako sozio-ekonomia eragileek enpresa-jarduera berreskuratzeko eta enplegua sortzeko sustatutako estrategia sendotzen laguntzen du

Sakanako Mankomunitateko presidentea Aitor Karasatorre Mugu-ruzak eta Nafarroako Gobernu-ko Ekonomia Garapenerako lehendakari-orde Manu Aierdik euren sinadurekin gauzatu zuten hitzarmena. Haren bidez ibarreko erakundeak Sakanako Plan Estrategikoa 2020 (SPE) aurten garatzeko 250.000 euro jasoko ditu. Sakanaren ekonomia jarduera berreskuratu asmoz, hitzarmenaren bi administrazioen ahaleginen koordinazioa arautzen du ere. Hitzarmenaren erakundeak zehaztu dira, hala, gobernuarengandik finantzaz aparteko babesa jasoko dute Sakanako erakundeak.

Hitzarmenak aldean dokumentazioa, gastuen justifikazioa eta betebeharrak arautzen ditu, eta Leader Programan eta Toki Administrazioen Planean sartzen diren beste lankidetzak batzuen osagarri dira. Gainera, Sakanako eragileak industria babesteko beste politika batzuek baliatu ahal dira, Nafarroako Gobernuak sustatzen dituen klusterretako ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+B) batzuek. Sinatutako hitzarmenaren jaso denez, aurten enpresa-jarduera nahiz enplegua sustatzeko 58 ekintza abian jartzea erraztuko da. Hori SPEk lantzen dituen lau sektoretan izanen da: industria, energia, turismoa eta elikadura.

SPE: 4 sektore, 14 ardatz eta 58 neurri

Sakana 2020 Plan Estrategikoa 13 ardatz estrategiko, 54 esku hartze

lerro eta 160 ekintza jasotzen ditu sei arlo estrategikotan: nekazaritza-elikagaiak, merkataritza, hezkuntza, energia, industria eta

turismoa. Gainera, lankidetzak sareak ehuntzen ari dira, bai eta ideiak nahiz baliabide endogenoak mugiarazteko ere. Gobernan-

gertutik >>

Manu Aierdi

Ekonomia Garapenerako lehendakari-ordea

Egun pozgarria?

Bai, bai. Sakanan azken urteetan egindako elkarlana gogoratzen ari gara. Horrek duen garrantzia azpimarratu nahi du. Eta zoriondu. Sakanan alderdiak, enpresariak, udalak, sindikatuak... gizarte osoak azken bost urteetan zein lan kolektibo egin duen, denek norabide berean. Hori azpimarratzea da helburu garrantzitsuetako bat. Eta, bigarrena, zein aukera ditugun heldu den urteari begira. Uste dut hitzarmen sendoa sinatu dugula. Sakanako Plan Estrategikoa (SPE) aurrera ateratzea lagundu nahi du hitzarmenak. SPE ibarrarendako oso ona izanen dela uste dugu, gobernuaren parte-hartzea eta bultzada. Nafarroa osora begira, beste eskualdeendako praktika onen adibide bat da. Bai iraganera begira, baina bereziki etorkizunera begira, egun polita.

SPE garatzeko ibarretik eskatzen zen guztia ezin da eman, baina gobernuaren beste atari batzuk zabalik daude, ezta?



Hitzarmenarekin 250.000 euro hitz eman ditugu aurtengo. Kopuru handia da. Diru hori sail handiago batetik ateratzen da (800.000 eurokoa). Sakanako adibide hau beste eskualdeetan bultzatu nahi dugu. Eredu bera: lortzea azpitik gora bultzada hori etortzea, Sakanan egin den bezala. Sakanarekin aurtengo hitzarmena sinatu dugu, baina gure eta alderdi politiko guztien aukera, laguntza aurten eta hurrengoetan ematea da. Gobernuaren asmoa 2020ra arte laguntza egotea da. Hitzarmenaren diruaz aparte gobernantza eredu bat zehaztu da. Gobernuak bere rola izanen du.

Denen artean SPE errealitate bihurtzen lagunduko dugu. Horrek denen arteko gobernantza sendoa eskatzen du. Denen artean elkarlanean jarraitzea eskatzen du, ez bakarrik plana egiterakoan, baizik eta plana bihurtzerakoan. Nik ilusioa dut.

Sakandarrek lehendik eurekiko ardura zuten. Baina orain eredu izan behar badugu, ardura handiagoa da!

Nire ustez halako erronkak politak dira. Nik hala sentitzen dut: zure eskuetan zuretzako ona den gauza polit bat egiteko erronka duzunean, besteendako adibide izan daitekeena gainera, horrek oraindik hobeki egitera bultzatzen zaitu. Hori presio ona da. Halakoak gustatzen zaizkit. Azken finean, denek Sakanan, eta Nafarroan, langabezia kopuru hori jaisteko lan egingen dugu. Kopuruak jaitsi badira ere, hainbeste pertsona langabezian egonda, ea buelta ematen diogun. Gizartean pobrezian sartzeko arriskua duen pertsonarik ez izateko, gizarte harremanetatik kanpo inor ez gelditzea. Lana garrantzitsua da, pertsona bere bizitza moldatzeko, ordenatzeko, harremanak izateko, bere buruarekin gustura egotea... Lana garrantzitsua da eta ahalegin guztiak egin behar ditugu.

Datuak

Langabezia 2015ean

Nafarroan % 14,7.
Sakana mendebaldean % 20.
Sakana erdialdean eta ekialdean % 12,4.

Iraupen luzeko langabezia-tasa

Nafarroan % 39,2.
Sakana mendebaldean % 44.
Sakana erdialdean eta ekialdean % 38,5.

tzaren eredu ireki bat ere zehazten du eragileen arteko lankidetzak era efizientean antolatzen. Asteartean izenpetutako hitzarmenarekin, lau sektoretako ekintzak sustatuko dira aurten: industria (124.860 euro), energia (16.180 euro), turismoa (66.820 euro) eta elikadura (42.140 euro).

Energiako jarduerak honakoak izanen dira: eragile publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak sustatzea, industriako enpresen kokapen estrategikoa hobetzea, enpresa berrien sorrera sustatzea, azpiegiturak hobetzea eta eskualdeko erakargarritasunak komunikatzea. Ondorengo proiektuak nabarmentzen dira, esaterako: industrialde eta enpresen inbentarioa edo enpresen arteko lankidetzak sustatzea edo enpresa eta ikastetxeen artekoa (LH), prestakuntza, edo proposamen bat egitea abiadura handiko telekomunikazio-sarerako sarbidea hobetzeko.

Energian, diru-laguntza energia-enpresen kokapena hobetzeko bideratuko da edo proiektu energetikoak eta berdeak garatzeko (adibidez, energia-eraginkortasunaren kultura sustatzea, biomasa sustatzea, eraikuntza-sektorea energia-errehabilitaziora birmoldatzea).

Turismoan, helmugako kudeaketako, turismo-dinamizazioko eta produktuak merkaturatzeko eta sustatzeko jarduerak sustatuko dira: mugikortasun- eta aisialdi-plan bat prestatzea, Santiago bidea sustatzea...

Elikadura-sektorerako laguntzak honako hauetan oinarrituko dira: abeltzaintzako ustiapenen kudeaketa iraunkorra, baliabide publikoen kudeaketa, tokiko elikadura-sistemak sustatzea eta prestakuntza. Hala, ekoizleen foro bat abian jarriko da (abeltzainen arteko lankidetzak), azokak sustatuko dira...

Planaren barnean hezkuntza (eskualdeko ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzak handiagoa) eta merkataritzako beste ekintza batzuk jasotzen dira, hurbileko kontsumoak duen eraginaren gaineko kontzientziazioa zabaltzeko ekintzak eginez.

Sakanako Plan Estrategikoa garatzeko hitzarmenaren sinadura

gertutik >>

Aitor Karasatorre MuguruzaSakanako Mankomunitateko
presidentea**Egun pozgarria?**

Bai, 2011tik ari garelako hau gauzatu ahal izateko borrokan. Azkenean ez dira onartu ziren sei neurriak aurrera eramanez ahal izatea. Hau garrantzitsua iruditzen zaitzaigun. Honek bultzada handia emanen dio Sakanako Plan Estrategikoaren (SPE) garapeneri.

Bost urte atzera egin duzu, zergatik?

Krisi mahaia sortu zen 2011n, hainbat eragile, alderdi eta sindikaturekin. Han sei puntuko bide-orri bat onartu zen. Haietako hiru Sakanari zegozkion: garapenerako tresnaren bat sortzea (Sakanako Garapen Agentzia), gizarte dinamizatzaile baten sorrera (Sakantzen Sarea) eta plan estrategikoa egitea edo lantzea (SPE). Nafarroako Gobernuari beste hiru gauza eskatzen zitzaizkion eta horiek dira gehien kostatu zaizkigunak: Sakana premia-izazio berrindustrializazio eremu izendatzea eskatu genion orduko gobernuari eta ezin izan zen egin, elkarlanerako gune bat sortzea eta, azkenik, bide orria SPE izanik, ibarrean adostutako ekimenak di-



ruz-laguntzea (astearteko hitzarmena).

Joan den urtean hasi ginen negoziatzen, ilbeltzean ekin nahi genion. Berandu xamar hasi gara. SPEren garapenerako gure aurreikuspenak ziren milioi bat euro beharko zirela lehen bultzadarako. Nafarroako Gobernuak diru handirik ez duenez, lortu ahal izan ditugu 250.000 euro. Bultzada bat izanen da. Horri udalek egiten duten ekarpena gehitu behar zaio. Hirugarren urtea da hori egiten dutena. Horrekin guztiaren plana abian jartzen dugu. Baina, esandakoa, gobernuak eta udalek plana elikatzen jarraitu behar dute.

SPE 2020ra arte garatzeko 7 milioi euro beharko lirakeke. Aurtengorako 600.000 euro nahi zenituzten eta 250.000 jaso dituzue.

Bai. Dugu gauzarik onena da bide-orria plan estrategikoa dela eta zein ekimen duten lehentasuna zehaztuta dago; guztiaren balioa zehaztua dago. Lortu zitekeen gehiena 250.000 euro lirakekeela esan zigutenean, lehentasunekoak ziren ekintzak hartu ditugu, 250.000 euro horiek bete arte. Aurtengo milioi bat nahi genuen, inbertsioak zeudelako. Haiek kenduta, 600.000 euro hainbat ekimenetarako... Horrekin hasi beharko dugu. Ongi egin beharko dugu. Eredu izan beharko gara. Heldu den urteko aurrekontuetan diru-saila handitu dezaten borrokatzen hasi nahi dugu.

Horretarako gauzak ongi egin beharko dira. Aurten 58 ekintza garatzeko asmoa, ezta?

Adostasuna zegoela eta urteak aurrera egiten zuela ikusita, pixka bat

aurreratu gara eta turismo teknikaria kontratatu genuen. Hiru lanpostu betetzeko deialdia egin berri dugu. Haiek betetzean ekintza horiek dinamizatzen hastea izanen da kontua. Jarraipena egin eta horretan buru-belarri jardutea.

Hiru langile horiek Sakanako Garapen Agentzian ariko dira, ezta?

Bai. Horiei aurretik genituen industria eta energia teknikaria eta Iker Manterola guztia dinamizatzen duena. Agentzia sortu genuenetik, langile bat izatetik bost izatera pasa gara. Hori bultzada handia izanen da. Denbora beharko du martxa hartzeko, baina nik uste dut gai izanen garela ekintza guztiak aurrera eramanez eta berri asko sortzen.

Kontuan izan behar da 250.000 euro horiei gehitu behar zaizkiela aurten Europak Cederna-Garalurren bidez banatzen dituen Tokiko Garapen Planetako dirua. Hori ere interesgarria da, hemen ditugun ekimenetara bideratu dezakegula. Adostutako milioi laurden hori ekimen jakin batzuk garatzeko da. Baina lotutako ekimen baterako laguntza beharko balitz, lankidetzaren hitzarmenaren jasotakoaren arabera departamendu ezberdinetara bideratuko gaituzte. Sakanako enpresek edo ekimenek beste nonbaitetik finantzazioa lortzeko

aukera dago.

Akordioaren gobernantza eredu nolakoa izanen da?

Alde guztiak zein gunetan elkartu eta jarraipena nola egingen dugun, hori da gobernantza eredu. Guk SGA dugu. Gutxi barru Sakanako Sozioekonomia Behatokiaren bilera deituko dugu. Han joan den urteko ekimenen eta aurtengo berri emanen diegu. Nafarroako Gobernuo eta ibarreko ordezkariak bilduko dituen gunea, nik uste, motorra izanen dela bultzatu eta edozein aldaketa egin beharko balitz gainean egonen dena. Gainean egon nahi dugu, denbora pasatzen utzi gabe. Edozein aldaketa egin beharko balitz, edozein erabaki hartu beharko balitz erantzun azkarra emateko.

Nafarroako Gobernuak diruarekin batera Sakanan konfiantza jarri du.

Bai. Hemen aurretik lan bat egin zegoen eta, Manuk esan duen bezala, gure ereduaren aprobetxatzea nahi dute beste eskualde batzuetan ezartzeko. Hori guretzako prezio pixka bat bada ere. Ardura. Baina, nik uste, zerbait egin edo bideratzeko hainbeste denbora daramagula zain, prest gaudela eta, ziur, ongi egingen dugula. Oso garrantzitsua da: bide-orria marikatuta eta adostuta dago. Denon zilegitasuna du.

gertutik >>

Iker ManterolaSakanako Garapen Agentziako
koordinatzailea**Esperotako eguna?**

Bai. Nahi baino gehiago luzatu da. Azkenean, jarri dugu harria, lehen pausuak ematen hasteko. Sinaduraren aurretik lanean ari ginen, baina hemendik aurrerako badakigu.

Aurretik lan eginda eta turismo teknikaria hasi berri da lanean, ezta?

Sinatzea bazetorrela ikusita turismo teknikaria kontratatu da. Eta hitzarmenean aurreikusten diren ekintzak aurrera eramateko langileen kontratazioarako prozesua martxan jarri da. Aste honetan curriculumak jasoko ditugu. Enpresagintzan, elikadura arloan eta administrazioan kontratatze deialdia egina dago. Interesatuek www.sakanagaratzen.com web orriaren bidez jaso dezakete informazioa.

Elikadura arloko teknikariaren zeregina zein izanen da?

Sinatutako lankidetzaren hitzarmenean aurrera eramateko 58 ekintza jaso dira. Arlo bakoitzak bere



ekintza zehatzak izanen ditu. Elikaduraren arloan daude, esaterako: abeltzainak biltzeko foro bat antolatzea, etorkizunera begira egin daitezkeen lanketak aztertzeke; bertako produktuen aldeko kontzientziazio lana; bertako produktuak hemen zenbat kontsumitzen ditugun edo ez, udal eta ikastetxeekin zein lanketa egin daitezkeen tokiko produktuak kontsumituz bertako ekonomia indartzeko.

Lehen sektorean lanpostuak sortzea?

Egin zen hausnarketetako bat zen sektorean adineko jendea zegoela eta jarraipenik ez zegoela. Hori da sektore guztian gertatzen dena. Hainbat tokitan gertatzen zen gazteek sartu nahi dutela baina hainbat arazo dituzte. Guk sarbide

hori egiteko hainbat aukera ikusten ditugu. Udalak, eragileak... hainbat gauza landu beharko dira baina guk aukera batzuk ikusten ditugu. Lanpostu honen zeregina aukera horiek aztertzea, lantzea eta etorkizuneko bide horiek jartzeko litzateke.

Industria arloan ariko den teknikariaren zeregina zein izanen da?

Orain arte industriarako industria-ingeniarria genuen, prozesuetan eta gehiago sartzen zena. Baina ikusten genuen kudeaketa aldetik, enpresen administrazio ikuspegiaren lagunduko lukeen figuraren beharra genuela. Enpresen arteko elkarlana bulkatzen lagunduko lukeena. Jakina denez, industria da Sakanako ekonomiararen zati garrantzitsua, bat

lanpostuen aldetik ere bai. Elkar osatuko luketen bi teknikariaren beharra ikusten genuen. Bulego lanetarako, administraria. Sakanako Garapen Agentzian bost pertsonako lantalde bat bilduko da eta administrariak sortuko den burokrasia bideratzen lagunduko du. Hitzarmena itxi da, diru-laguntza da, kontrol zorrotza behar du, baina ez genuen burokrasian ito nahi: diru gehiago gastatzea kontrolean gauzak egiten baino. Gobernantza modu malgu bat landu dugu. Lehen aldia da, dituen alde on eta txarrekin.

Hiru langileak noiz hasiko dira lanean?

Maiatzaren erdialderako nahi genuke. Lehenbailehen. Beraz, Sakanako Garapen Agentziak sei langile izanen lituzke. Turismo teknikaria, elikadura arlokoa, industria arloan bi teknikari, administraria eta kudeatzailea.

Sakanako Sozioekonomikoa Behatokiaren bilera aurki dezakezakezake, ezta?

SPEren orain arteko martxa aztertuta eta aurrera begira moldaketak egin behar badira horiek zehaztea da bere zeregina. Gure asmoa urte hasieran egitea zen, joan den urtean bezala. Baina

akordioarena luzatu egin da eta ahal den azkarren deituko dugu. Behatokiaren helburua baita Sakanako eskualdearen eta gizartearen ordezkariak zabal bat hartzea, eta joan den urtean egin zen bezala, bai Cederna-Garalurrek bai SGAK, plan estrategikoaren talde motorra eratzen duten bi erakundeek, 2015ean egindakoaren aurkezpena egitea eta aurtengo proposatzen diren ekintzen aurkezpena egitea. Sinaduraren zain geunden deialdia egiteko.

Sakanako etxeetara lapikoa duen esku-orria banatu duzue, han egosteko ideiak eskatu dituzue. Zer egin behar da ideia horiek jakinarazteko?

www.sakanagaratzen.com web orriaren bidez gurekin harremanetan jarri eta bidaltzea. Azkenean, garrantzitsua ez da SGA ideiak bidaltzea edo ez. Baizik eta ideiak izan eta gure ingurunean ideia horiek lantzen hastea. Elkarlana dagoen tokian, izan daiteke festen bidez edo beste edozer gauzatan, hortik beti gauzak ateratzen dira. Etorkizunetako plaka, eta proiektuak ateratzen dira. Guretzako garrantzitsua hori da, eskualde eta elkarlan ikuspegi horrekin aritzea. Ziur zerbait aterako dela.

Sakanako Plan Estrategikoa garatzeko hitzarmenaren sinadura

gertutik >>

Paki Urbitarte

Sakanako Garapen Agentziako koordinatzailea



Noiz hasi zinen lanean?
Apirilaren 8an hasi nintzen.

Zer moduz?
Ongi. Lehenengo astean mar-txan zeuden proiektuekin egu-nean jartzen. Pixkanaka. Saka-

nako Plan Estrategikoa (SPE) barruan ekintza batzuk jasoa daude. Horiek egin arte lehen-tasunak edo nondik hasi azter-tzen. Bi aste eta erdiren ondo-ren, nondik bideratu edo nondik hasi badakigu.

Aurtengo lehentasunak zein dira?

Aurreneko gauza Bidelagun tu-rismo elkartearen aurrean aur-keztea izan zen. Haiekin elkarla-nean hasi nintzen. Haiek turis-moa aurretik lantzen ari dira. Ni, teknikari gisa, haien babes aza-zan naiz. Hasi eta segituan argaz-kilaritza ikastaro bat antolatu du elkarteak. SPE barruko ekintze-tako bat da Sakanako argazki bil-duma bat sortzea. Ikastaro horre-tako ikasleen bidez Sakanako ikuspegi ezberdinetako argaz-

kiak lortuko ditugu. Horiek eta beste batzuekin argazki bilduma osatuko dugu hainbat gauzatarako materiala izateko: www.saka-na.eus web gunea indartzeko, argitalpenetarako Hori izan da le-hendabiziko ekintza eta Bidelagunekin lanean hastea, la-guntza ematea.

Lehentasuna duen ekintza bat Sakanako inbentarioa egitea da. Ditugun turismo-baliabideak aztertzea. Zein egoeratan dau-den jakitea. Horretarako, Bide-lagun elkarte eta udalen arteko elkarlan akordioak sinatu nahi dira. Sektoreak eskaintzen due-na (alojamendua, turismo en-presak, turismoarekiko profe-sionaltasun maila...) jakiteko galdetegi bat egingen da. Analisi orokorra egin nahi da, zer dago-en eta nola dagoen, gerora era-

biltzeko.

Nafarroako Gobernuak herrialde mendebalderako teknikaria izendatu du. Harekin harremanetan zaude?

Bai. Patxi Saenzekin elkarlanean gaude. Bera guri laguntzeko da-go. Guretako garrantzitsua da Nafarroako Gobernuan zer ate jo jakitea, zalantzak argitzeko. Berak esperientzia du. Sakanaz aparte beste eskualde batzuk ere kudeatzen ditu. Guretako espe-rientzia hori oso ona izan daiteke, etekin handia atera dezakegu. Hizketakidea izatea babes eta la-saitasun handia da. Aste honetan bertan Turismo Departamentuan bilera izanen dut, elkar ezagutze-ko eta gure proiektuak gauzatzeko modua aztertze. Horretara-ko daude, gu laguntzeko.

SPekin uztartzen direnak aurrera ateratzeko.

Hori da. Guk SPEn aurtengo lanak zehaztuta ditugu. Ekintza horiek aurrera eramaten saiatuko gara. Horretarako Patxiaren laguntza izanen dugu. Zer ekintza gehiago egin daitezkeen ere aztertuko dugu; SPekin lotuta, nondik jo dezakegun... aurtun zerbait gehiago egin ahal den edo heldu den urterako dauden beharrak edo bideak zehazteko.

Turismo arloko eragileek zurekin harremanetan jarri nahi badute, non opatuko zaituzte?

Utzuganen, Sakanako garapen zentroan, Arbizuko Utzubar in-dustrialdean dugu bulegoa. Bes-tela, furbitarte@sakanagara-tzen.com e-postaren bidez.

>> Iturmendi

Akordioa gaztearen auzian

Altsasuko 2013ko Ospa Eguneko atxilotetarik gazte iturmendi- batoritateari atentatu delitua- gatik epaitu behar zuten ostirale- an. Baina aldean arteko akordioa izan zen eta ez zen epaiketarik izan. Autoritateari atentatu zena erre- sistentzia gisa kalifikatu zuten eta 18 hilabeteko espetxe zigor eska- era beharrean hirukoa izan zen. Bai- na isuna ordaintzearekin gazte itur- mendiarra ez da espetxera joan beharko. Gainera, hasiera batean 1.000 euroko isuna aurreikusten bazen ere, 2.100 eta 2.400 euro arte- koa izanenda. Oraindik epailearen

aurrean deklaratu ez duen Guar- dia Civil baten esanen arabera- koa izan da kalte ordainaren kopu- rua. Gaztea atxilotzerakoan izan- dako zauriengatik izan litzateke.

Gaztearen babes taldeak Guar- dia Civilak eta fiskalak auzian "epeekin ajolagabe ibili" direla nabarmendu dute, "gauzak epez kanpo eginez, defentsari behar- zen informazio guztia pasa gabe. Horrekin, iturmendiarraren esku- bideak urratu zituen, defentsa gabe uzten zutelako. Beraz, erre- kurritu ondoren, akordio batera heldu ziren". Taldeak deituta poli-

Elkartasun bazkaria

Gazte iturmendiarrari jarritako isuna ordaintzen laguntzeko domekarako elkartasun bazka- ria antolatu da. Izena eman nahi dutenek herrietako gaztetxe- tatik pasa edo 608 774 743 edo 696 870 433 telefono zenbakie- tara hots egin dezakete.

zia muntaian kontra eta errepre- sio indarrek alde egiteko eskatuz 30 bat pertsona elkartu ziren Iru- ñeko auzitegi parean ostiralean.

>> Altsasu

Parte hartzearen kulturaz

Open Akademiako hitzaldiak 200dik gora sakandar erakarri zituen osti- ralean Gure Esku Dagok eta Agirre Lehendakaria Centerrek antolatu- ta, Juan Jose Ibarretxek (Lehenda- kari ohia eta Agirre Lehendakaria Centerreko zuzendaria), Ainhoa Aznarezek (Nafarroako Parlamen- tuko Presidentea), eta Dora Salaza- rrek (artista altsasuarra) hartu zuten hitza, Gaizka Aranguren aurkez- tuta.

Ibarretxek bere zentroaren hel- burua zein den azaldu zuen: "eral- dakuntza sozial eta ekonomiko- ren euskal esperientziari buruz- ko ezagutza hedatzea, eta herritarren arteko eztabaida sus- tatzea, euskal gizartearen etorki- zuneko erronken inguruan". Iker- keta, garapena eta berrikuntza aldarrikatu zituen. Baina hiruko- te horren ezinbesteko osagaia tokian tokiko kultura dela nabar- mendu zuen. Nafarroan izanda- ko aldaketa politikoaz adierazi zuen "azken aldian Euskal Herrian eman den berrikuntza sozio- poli- tiko handiena dela. Orain jakitu- riaz eta eskuzabaltasunez kude- atu beharra dago".

Aznarezek aldaketa Nafarroako Parlamentura iritsi denetik herri- tarren parte-hartzea sustatzeko hartutako neurrien berri eman zuen: ezkaratza erakusketak eta eki- taldietarako bideratzea, eragile- kin gai jakinei buruzko batzar monografikoak egin... Erabakitze- ko eskubidearen alde azaldu zen. Baina horretarako denek baldin- tza berak izatea aldarrikatu zuen, "jatekorik ez edo argindarra ordain- tzeke ez duenak ez duelako bal- dintza berak". Salazarrek arte sor- tzerakoan izaten diren erabakiak eta publikoarekin sortzaileak eta obrek duten harremanez aritu zen. Horretarako, bere obraren errep- a-so bat baliatu zuen.

SAKANA

Sartagudako memoria egunera joateko autobusa

1936ko estatu kolpearen ondoren- go errepresaliatuak gogoan, Sarta- gudakurtero memoriaren eguna har- tzen du. Maiatzaren 7an ospatuko da aurtun eta hara joateko Saka- tik autobusa antolatu da. Izena eman nahi duenak 629 486 123 tele- fonora hots egin dezake, asteazke- nera arte. 15 euro ordaindu behar- ko dira. Bazkaltzeko aukera ere badago (20 euro), baina ez da segu- ria tokia egonen denik 200 perso- narendako tokia dagoelako.

Egitaraua eguerdian abiatuko da, memoriaren parkean emakumei eskaintako eskultura mustuz. Gorka Armendariz, Isabel Revilla del Rio, Ana Ortega Urbiola, Bide Ertzean, Sarta- gudako jotakantariak eta Erriberriko txis- tulariek parte hartuko ekitaldian. Des- peditzeko bazkaria izanen da.

>> Etxarri Aranatz

Elkartasun egunean auzipetuei babesa

Elkartasun egunean, larunbatean, 600 bat pertsonak parte hartu zuten *Xafan eta Joxe aske! Epaike- ta politikorik ez* leloa zuen mani- festazioan. Akaberan Joxe Alda- sorok eta Patxi Arratibelek hitza hartu zuten. Lehena 8/2013 sumarioan auzipetua dago beste zortzi euskal herritarrekin batera eta epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalean maiatzaren 17an hasi- ko da. Hiru aste iraunen du. Epai- ketari dagokionez, Aldasorok azal- du zuen AVT eta Dignidad y Jus- ticia direla akusazio partikularrak eta azken horrek dagoeneko aurre- ratu duela ez duela inolako alde- en arteko akordiorik nahi. Epai- keta egingen da, beraz.

Azken astean jendearengandik bi iritzi jaso dituela azaldu zuen Aldasorok: "nola liteke akordio hori sinatzea, ezker abertzalea- ren marra gorriak gainditzen ditu, prakak jaisten dituzte. Edo, zuri papera jarriz gero, sinatuko duzu, ezta, bestela tontoa zara!". Ez bata



Elkartasun eguneko manifestazio burua plazara iristen.

ez bestea, argitu zuen Aldasorok. Gaurko egoeran jendea espetxera ez joateko sinatu dute batzuk, hori da garrantzitsua. Gainontzeko preso politikoei modu onean era- giteko balio dezakelako". Herriko- en eta Askapenako auzipetuek inolako akordiorik ez zutela bila- tu gogoratu zuen. "Ez sinatzea, bes- te bidea bezain baliagarria izan daiteke". Epai ketari begira, "herri bezala, bide guztiak esploratu

beharra dugula uste dut". Epaike- tarren aurreko asteburuan ekital- diak izanen direla aurreratutako Aldasorok.

Arratibelek sumarioa zabalik izan den bost urteetan jasotako babes guztiagatik "bihotzez" eske- rrak eman zituen. Joxeren epaike- tari begira egingen diren deialdie- tan parte hartzeko gonbidapena luzatu zuen. Bukatzeko bien alde- ko manifestua irakurri zen.

>> Arbizu



36a oroituz

Oroimenez Arbizu taldeak 1936 ger- taeren memoria agerian uzteko lanean, igandean mahai-inguru- a antolatu zuen. Altsasu Memorian tal- dean eta Etxarriko eraildako enbila- ketan aritutako Amaia Urkijo, Uhar- te Arakilen sortu berri den memo- ria-taldeko Gaizka Uhartea eta Memoriaren Autobuseko Ana Barre- na izan ziren hizketan. Euren lana- ren berri eman zuten hirurek. Gaiak Argentinan jarritako kereilera era- man zituen. Iruñeko Udala kereila horretako parte izateko aukera aztertzen ari zela azaldu zuen Barre- nak. Aurrera begira ezer zehatzik ez zuten lotu, baina arloan lanean jarraituko zutela nabarmendu zuten.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



Juli Berastegi Arbizu
V. urteurrena

Bihotzean min dut, min etsia,
zotirik gabeko negar mina.
Halatsu txoriak, uda ondoz,
negua du galazi ezina.

Zure senarra, seme-alabak eta ilobak
Lizarraga-Ergoienan, 2016ko apirilaren 28an.




Txomin Etxeberria
Silvestre Goikoetxea
Felix Mari Igoa
Jesus Mari Larraza

Jose Rodriguez
Madalena Senar
Alfonso Ulyar

Beti gurekin.

58ko kintuek




Josefina Goikoetxea Ollakindia
(Pako Ostiza-ren alarguna)
Herenegun hil zen 89 urte zituela.

Gue inguti fan za,
zue bizi poza gue artien autziz.

Bere alaba: Silvana; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.
Bere aldeko meza datorren IGANDEan goizeko HAMAIIKA ETA ERDIETAN URDIAINgo (NAFARROA) parrokiaren izango da.

TOLOSA, 2016ko apirilaren 27an.




Antoni
San Roman Otegi

Beti gogoan
izango zaitugu.

San Roman-Barberena familia

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIO-

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.eus

Lana/ Negozioak
LAN ESKAINTZA
Andra Mari ikastolako garbitasun lanpostuak osatzeko deialdia. Bidali CV argazkiarekin etxarri@ikastola.eus helbidera gaia "Garbitasun Lanpostuak" dela zehaztuz edo ikastolako idazkaritzan aurkeztu maiatzak 6a arte.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
SALDU

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatzan. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

Opatutakoak / Galdutakoak
OPATUTAKOAK
Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

ikastaroak
Udako Euskal Unibertsitateak (UEU). Bere udaberriko eskaintza aurkeztu du. Otsaila eta maiatz bitartean 4 ikastaro eta 4 hitzaldi antolatu

ditu Nafarroan, www.ueu.eus

Haziendak izapideak on-line bidez nola egin. Ekintzaileei eta bere kontu lanean ari direnei, bereziki izapideak on-line egin nahi dutenei zuzenduta. Maiatzak 2, 10:00-14:00. Cederna Garalur/Utzugane. Arbizu. Izen ematea 948 56 10 10 edo sakana.admon@cederna.es

Eko-ogiak. Maiatzaren 10ean (ore ama), 17an (hobekuntza) eta 24an (glutenik gabeko ogia), asteartean, 18:00etatik 21:00etara. Arakilen erroldatuek 50 €, saio bakarragatik 20 € ordaindu behar dituzte. Arakilen erroldatuta ez daudenak 60 eta 25 €. Izen ematea eta informazioa: arakilkultura@gmail.com edo 948 500 101. Arakilgo Udala.

Oharrak
Sagardotegira. Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak sagardotegira irteera antolatu du apirilaren 30erako. 13:00etan abiatuko dira herri-tik, eta Hernanitik bueltatzeko ordua 5:00etan jarri dute. Txartelak 40 eurotan Leku Ona eta Xapatero tabernetan daude.

Cava festa Lakuntzan. Maiatzaren 20an, 21ean eta 22an izanen da. Txingurriyek bazkariak eta afariak emanen ditu. Lagundu nahi duenak kultura@lakuntza.eus helbidera idatzi dezala.

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES 33 2100 5365

2301 0002 9770.

GoiEnerg Iruñean. Landare utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabete-ko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

JAIOTZAK

- **Walid Bouajaja Bouajaja,** apirilaren 5ean Irurtzunen.
- **Eki Azkarate Andonegi,** apirilaren 12an Altsasun.
- **Itziar Alexandra Perez Jurado,** apirilaren 17an Etxarri Aranatzan.
- **Egoi Garziandia Garziandia,** apirilaren 18an Etxarri Aranatzan.
- **Iera Moreno Mata,** apirilaren 20an Ihabarren.
- **Kepa Igoa Garziandia,** apirilaren 20an Etxarri Aranatzan.
- **Emmanuel Marfo Adom,**

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaxe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman

apirilaren 21ean Altsasun.

HERIOTZAK

- **Benedicto Etxeberria Maiza,** apirilaren 20an Altsasun.
- **Adela Gil Labiano,** apirilaren 22an Altsasun.
- **Maria Antonia San Roman Otegi,** apirilaren 24an Olaztin.
- **Josefina Goikoetxea Ollakindia,** apirilaren 25ean Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

PILOTA

GRAVNI: NAFARROAK 32 FINAL JOKOAN: Asteburuan GRAVNI txapelketako finalak jokatu dira Nafarroan. Nafarroako se-

lekzioak 22 final jokatu ditu ezker parteko modalitatean eta 10 final trinketean. Tartean dira sakandarrak.

Pilota



Altsasun finalerdien txanda

II. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketan gaur eta igandean finalerdiak daude jokoan, Altsasuko Burunda pilotalekuan

Altsasuko Gazte Asanbladak eta Pilotajauku klubak antolatutako II. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketa azken txanpan murgildu da. Hiru mailatan jokatzeko ari da txapelketa eta martxoaren 4tik hona, astebururo giro bikaina izan da Altsasuko Burunda pilotalekuan jokatu-tako partidetan. Ligaxka eta gero, finalerdien txanda iritsi da. Ostiralean, 19:15etik aurrera, eta igandean, 17:00etatik aurrera, Altsasuko Alde Zaharreko festetan jokatu diren final handietarako zein bikote sailkatuko diren erabakiko da.

Finalerdiak

Apirilak 29, ostirala, 19:15ean:

1.maila: Ligaxkako atzeratutako partida bat jokoan

2.maila: Ansa-Urrizola / Gonzalez-Alustiza

1.maila: Lopez de Zubiria-Garziandia / Otermin-Aldaz

1.maila: Senar-Alustiza / Zelaia-Grados

Maiatzak 1, igandea, 17:00etan:

3.maila: Santamaria-Larrion / Donlo-Cid

3.maila: Araña-Senar / Bustamante-Urizar

2.maila: Igoa-Vazquez / Gelbentzu-Gelbentzu

Txirrindularitza

Maialen Aramendia bigarren juniorra Barrundian

Larunbatean V. Barrundia Udal San Prudentzio Trofeoa jokatu zen (78 km), aldi berean Arabako Emakumezkoen Elite eta Junior Txapelketa eta Emakumezkoen Euskaldun Torneorako baliagarria zen proba. Reyno de Navarrako Ainara Elbus-to elitea izan zen protagonista, bakkarik iritsi baitzen helmugara (2:10:04). 7 segundora sartu zen 14 txirrindulariz osatutako taldea. CAF Transport Engineering taldeko Maialen Aramendia iturmendierra 8.a sartu zen, probako bigarren juniorra.




Pilota

Orain Urrutikoetxea

Ezkurdiak goitik behera dominatu zuen Retegi Bi (12 eta 22) eta Buruz Buruko final-laurdenetan egungo txapelduna, Urrutikoetxea, izango du aurkari igandean

Joseba Ezkurdiak sekulako erakustaldia eman zuen larunbatean Labriten eta Julen Retegiri 12 eta 22 irabaziz. Horrela, arbizuarra lehenaldiz sailkatu da Buruz Buruko final-laurdenetarako. Arbizuko aurrelariak Urrutikoetxea izango du aurkari final-laurdenetan.

Ezkurdiak goitik behera hartu zuen menpean Retegi Bi. Aurki aldea ateratzen hasi zen arbizuarra, eta ordutik partida guztian aurretik joan zen. Oso ongi jokatu zuen Ezkurdiak, eraginkortasun handiarekin. Partida gogorra izan zen, erritmo handikoa. 7 eta 14 eta 8 eta 18 aurreratu zen arbizuarra, eta bikain astindu zuen pilota. Retegi Bik ez zuen etsi, baina uneoro agindu zuen Ezkurdiak. Nabaria da sasoi betean dagoela pilotari sakandarra. Lasai aritu zen, kolpe bikainarekin, ez zuen behera egin, ongi kontzentratuta ibili zen eta dominatu egin zuen. Retegi Bik ongi jokatu zuen, baina Ezkurdiak bikain. Egindako lanarekin pozik azaldu zen ostiralean 25 urte bete zituen arbizuarra.



Ezkurdiak Retegi Biren kontra bezala jokatu beharko du igandean.

Igandean Urrutikoetxea

Final-laurdenetan egungo txapeldun Mikel Urrutikoetxea izango du aurkari Ezkurdiak igandean, 17:00etan, Bilboko Bizkaia pilotalekuan (ETB1, ntb). Partida lehia-tua espero da, baina orain arte bezala jarraituz gero, aurrera egiteko aukera du Ezkurdiak.

Oinatz Bengoetxeak eta Iñaki Artolak jokatu dute beste final-laurdena, ostiralean, 22:00etan, Donostiako Atano III. ean (ETB1, ntb) eta Iker Iribarriak eta Aimar Olaizolak bestea, larunbatean,

18:00etan, Labriten (ETB1, ntb). Jokin Altunak Juan Martinez de Irujoren kontra jokatu behar zuen final-laurdenetako azken partida, baina Irujok jokatzeari uko egin dio, eskuin eskua ez zaiolako behar bezala sendatu. Hortaz, Altuna III.a finalerdietara pasako da, automatikoki.

Bestalde, 24. Irurtzungo Pilota Txapelketan Ojuelek eta Altunak 22 eta 19 irabazi zioten Garateari eta Matuteri eta Espinali eta Legarretari 18 eta 22 irabazi zieten Arrietak eta Arratibelek.

Txirrindularitza

Maiza, Etxeberria eta Arbizu Nafarroako selekzioarekin



Igandean junior mailako Gipuzkoako Klasikoa jokatu zen Oñatin, Federazioko Koparako baliagarria. Nafarroako selekzioarekin Burunda taldeko Xabier Maiza lakuntzarrak eta Asier Etxeberria lehiatu ziren, eta baita Irabia klubean trebatutako Gorka Arbizu ere. Egunean ihesaldiansartuz Asier Etxeberria, baina tropelak haien nahia zapuztu zuen. Xabier Maizak erorikoa izan zuen, baina, zorionez, sustoa besterik ez zen izan. Errioxako selekzioko Arturo Gravalos izan zen txapelduna (2:51:41). Asier Etxeberria 31.a sailkatu zen (2:54:08) eta Gorka Arbizu 51.a

(2:54:53). Bestalde, Burunda taldeko Juan Riaño 34.a sailkatu zen (2:54:53) eta Daniel Izquierdo 105.a (3:00:18). biak Errioxako selekzioarekin.

Igandean proba Etxeberrin Maiatzaren 1ean, igandean, juniorren Lacturale Trofeo jokatu dute Etxeberrin, Ermitagaña klubak antolatuta. Tropela goizeko 10:30ean abiatu da Etxeberriko Granjatik, eta Udabe, Jauntsarats, Etxaleku, Zia, Irurtzun eta Madotzeko gainatik pasa eta gero, Lekunberritik eta Mugirotik barrena txirrindulariak Goldaratzeko helmugaraino iritsi dira (71 km).



Irteera. Burundakoak eta Aralarako Josu Etxeberria, bizkarrez, lehen ilaran.

Josu Etxeberria hirugarrena XXIX. Burunda Trofeoan

Igandean jokatu zen Burunda Txirrindularitza Klubak antolatutako XXIX. Burunda Trofeoa (63,5 km). Euskal Herriko Gaztetxoak Torneorako baliagarria zen, eta asko nabaritu zen, txirrindulari eta talde gehiago aritu baitziren.

Faboritoak tropelean iritsi ziren helmugara. Esprint estuan, Gaurisa Renault taldeko Markel Rodriguez nagusitu zitzaizen Toyota Armentia Jon Sanchezi eta Aralar talde sakandarreko Intersport Irabiako Josu Etxeberria iturmendiarrari. Burundako Quesos Albeniz taldeko Mateo Gonzalez laugarrena sailkatu zen. Ailetz Lasa (Q.A.) 24.a sartu zen, Urko

Gorriti (I.I.) 29.a, Imanol Galarza (I.I.) 38.a, Javier Mitxaus (I.I.) 42.a, Iosu Jaka (Q.A.) 43.a, Unai Villalobos (Q.A.) 48.a, Marcos Pison (Q.A.) 51.a eta Beñat Etxezarreta (I.I.) 74.a.

Urtasun Turkian

Funvic talde brasildarrean dabilen Pablo Urtasun urdiaindarra Turkiako Itzulian lehiatzen ari da. Atzoko emaitzen faltan, Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Pello Bilbao zen liderra, eta Urtasun 25.a zen, 26:03ra.



Eskuz bikain moldatzen dira ere

Yanira Aristorena eta Maite Ruiz de Larramendi palistek I. Torneig de Pilota Má Femeni txapelketa irabazi dute Bartzelonan, eskupilotan

Asteburuan I. Bartzelonako Emakumeen Esku Pilotako Txapelketa jokatu da, I. Torneig de Pilota Má Femeni. Yanira Aristorena etxarriarra eta Maite Ruiz de Larramendi palista ezagunak dira, baina eskupilotan ongi moldatzen direla demonstratu dute, aipatu txapelketa irabazi baitute. "Guztira 50 bikotek hartu dugu parte Bartzelonan. 1. mailan 12 bikote gauden. Sakantik Amaia Jaka eta ni joan gara" adierazi digu Aristorenak. Hasierako ligaxkan bi partida jokatu zituzten Aristorenak eta Ruizek eta finalerdietarako sailkatu ziren. "15 eta 8 irabazi genien Patriri eta Ainhoari. Eta finalean Leitzako lera eta Ainara izan genituen aurkari, lagun onak. 15 eta 7 irabazi genien" nabarmendu du bereetxeko apalategirako beste txapel bat lortu duen etxarriarrak. Amaia Jaka ez zen final erdierako sailkatu.

Mendia

Dena prest XXVII. Sakanako Ibilaldirako

BIHAR, LARUNBATEAN, GOIZEKO 6:00ETAN IBILBIDE LUZEKOAK ABIATUKO DIRA, 7:30EAN IBILBIDE MOTZKOAK ETA 9:30EAN IBILBIDE TXIKIKOAK

Irurtzango Iratxo elkarteko kideak lan eta lan dabilta XXVII. Sakanako Ibilaldia behar bezala antolatzeko azken ukituetan murgilduta. Nafarroako iraupen luze-ko mendi ibilaldi beteranoena da Irurtzangoa, proba ez lehiakorra, eta bihar goizean goiz abiatuko da, Atakondoa ikastetxeko frontoitik. Mendizaleek hiru ibilbide dituzte aukeran. Ibilbide luzea, ohikoa, IX. Nafarroako Iraupen Luzeko Ibilaldien Txapelketarako baliagarria da eta Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuituan sartuta dago.

Helburuak

Sakanako Ibilaldiarekin hainbat helburu lortu nahi dituzte. Bate-rik, gure mendi, herri, paisaia eta natura ezagutaraztea eta naturarekiko errespetua sustatzea. Aurrekoari lotuta, natura babes-teko proban sortutako zaborrak behar bezala birziklatzeko deia egin dute antolatzaileek. Bestetik, Sakanako kultur ondarea ezagutarazi nahi da, proba toki esanguratsuetatik pasatzen baita, Orraregi gaztelua, Euskal Herriko erdigunea, San Donato baseliza (1.495 m), San Migel santutegia, Larraspil trikuharria, Goldaratzetik Latasara errekupeatu den ibilbide zaharra, Trinitate baseli-

Dagoeneko 936 mendizale izena emanda



Ostegunean Ibilbide Luzerako 587 mendizale zeuden izena emanda, Ibilbide Motzarako 246 mendizale eta Ibilbide Txikirako 103 mendizale. Antolakuntzatik adierazi dutenez, 1.200 pertsona hartzeko azpiegitura dute prest, eta gogoratu nahi dute egunean bertan ere izena eman daitekeela. Ibilbidean barna hornidura eta kontrol guñak izango dituzte eskura mendizaleek eta DYAK probaren martxa zainduko du.

za eta abar tartean. Bestalde, Sakanako Ibilaldian Iratxok euskara bulkatu nahi du eta, bukatzeko, mendizaletasunaren festa handia izan nahi du Sakanako Ibilaldia, proba ez baita lehiakorra.

Ibilbidea bukatzerakoan Irurtzango plazan festa polita antolatu dute Iratxokoeak. Auzatea egonen da. Mendizale guztiek kamiseta eta diploma jasoko dute. Gainera, mendi materiala zozkatuko da parte-hartzaileen artean. Antolatzaileen esanetan "goza-

tzeko egun eder bat" izango da Sakanako Ibilaldi Handia. Guztia ongi ateratzeko egin beharreko lana ere, handia da, baina erantzuna eta emaitza ikusita, "gustura egiten den lana".

Egunean bertan izena eman daiteke

Ibilaldi Luzerako, 5:00etatik 6:00etara arte, Ibilaldi Motzarako 6:30etik 7:30era eta Ibilbide Txikirako 8:30etik 9:30era. Prezioa: ibilbide handia eta motza, 15 euro (lan-

XXVII. Sakanako Ibilaldia. 3 aukerak:

Ibilbide Luzea (54 km, 3.388 m desnibela): Goizeko 6:00etan abiatuko dira mendizaleak. Ibilbidea: Urrizola, Txurregi, Euskal Herriko erdigunea, San Donato, Uhartte Arakil, San Migel, Ata bailara, Madotz, Larraspil, Goldaratz, Latasa, Trinitatea eta Irurtzango plaza. 11/12 ordu inguruko ibilbidea.

Ibilbide Motza (27,5 km, 1.344 m desnibela): Goizeko 7:30ean abiatuko dira mendizaleak. Ibilbidea: Urrizola, Gaztelu, Ekai, Itxasperri, Palomeras, Goldaratz, Latasa, Arrantzaleen xenda eta Irurtzango plaza. 6 ordu inguruko ibilbidea.

Ibilbide Txikia (14 km, 736 m): Goizeko 9:30ean abiatuko dira. Etxeko txikienekin egiteko ibilbidea. Txikiak heldu baten zaintzapean egon beharko dute. Trinitatera igoko dira, Latasara jaitsi eta Arrantzaleen xendatik Irurtzango plazara helduko dira. 4/5 ordu inguruko ibilbidea.

gabeek 5 euro) eta Ibilbide Txikia 4 euro.

Automobilismoa



Goñik eta Aribek V. Lea Artibai Rallya osatzea lortu zuten

Narbaizak eta Etxeberriak irabazitako proban 50 auto erretiratu egin ziren

Ostiralean eta larunbatean V. Lea Artibai Rallya jokatu zen, Euskadiko Formula Libreko Trofeoa. 80 ibilgailu inguru lehiatu ziren, baina 50 ibilgailu erretiratu egin ziren. Iñaki Narbaiza eta Unai Etxeberria izan ziren txapelkunak (Peugeot 208 vti R2, 1:16:32). Sakana Motorsport taldeko Garikoitz Goñi pilotu etxeberrirak eta Iñaki Arive kopilotuak (Renault Megane) 23.ak izan ziren (1:42:18). "Ostiraleko gaueko eremuak lasai egin genituen. Larunbatean erritmo gehiagorekin hasi ginen eta denbora hobeak egin genituen. Tamalez, orduen kontrolean nahasmena izan genuen, gorpil baten zulatzea... azkenenean helburua proba despeditzea zen eta hori lortu genuen" adierazi du Garikoitz Goñik sare sozialetan.

Saskibaloia

CBASK, Final Fourrean

Nafarroako gizonezkoen senior mailako 1. maila autonomikoko Final Fourra Altsasun jokatu da asteburu honetan

Club Baloncesto Alsasua-Altsasuko Saskibaloia Kluba (CBASK) denboraldi bukaeran murgildua dago. Aurten 10 talde ditu CBASKek, gizonezkoen senior taldea tartean. Denboraldia gogotsu osatzen ari dira seniorrak. Izan ere, Nafarroako gizonezkoen senior mailako 1. maila autonomikoan ari da CBASK, eta primerako denboraldia egin eta gero, sailkapeneko lehen lau postuetan sailkatzea lortu du Altsasuko taldeak, ligako lehen postuan, zehazki. Beraz, ligako titulua erabakiko den Final Fourrerako edo lauko finalerako sailkatu da CBASK.

Fermin Herrero da gizonezkoen senior mailako CBASK taldeko entrenatzailea. Jon Otermin, Angel Liaño, Unai Mundiñano, Julen Mendia, Jorge Herrero, Eneko Casteg, Adrian Senar, Jorge Misiego, Javier Rueda, Iñaki Herrero eta Josu Mendiola jokalariek.

Altsasu, saskibaloia topaleku

Nafarroako Gizonezkoen senior mailako 1. Maila autonomikoko Final Fourra edo lauko finala



CBASK gizonezkoen senior taldeak denboraldi bikaina borobiltzeko aukera du.

Altsasun jokatu da asteburu honetan. Larunbatean, Zelandin, CBASK-ek Iruñeako Oberena izango du aurkari, eta Iruñeko Muthiko Alaiak taldeak San Adriango El Navarriko taldea. Bi partidetak irabazleek titulua lortzeko final handia jokatu dute igandean, 11:45ean. Aurretik, igandean, 9:45ean, 3. eta 4. postuak zehazteko finala jokatu da. Ea Altsasuko taldeak lan ona egiten duen eta final handirako sailkatzen den. Zalantzarik gabe, zaleen babesa izango du eta kantxa faktoreak beti laguntzen du. Ligako lehen pos-

Final Fourra Altsasuko Zelandi kiroldegian

Larunbatean
16:00etan: CBASK-Oberena
18:00etan: CBSA El Navarriko - Muthiko Alaiak
Igandean
9:45ean: 3. eta 4. posturako finala
11:45ean: Final handia

tuak tituluko lehen postuan isla izan dezala.

Non erabili

LIBURUNDA

ALTSASU

%5eko deskontua papertegian.

GOIKO LOREDENDA

ALTSASU

30€tik gorako erosketetan landare bat opari. Eskaintza ez metagarria.

MARI JOSE

ILEPAINDEGIA

ARBIZU

Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

FRUITIS FRUTA DENDA

IRURTZUN

%10eko deskontua fruitu tropikaletan.

EROSKI BIDAIK

ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hotelak eta garraio hutsen erreserbak izanez. Eskaintza ez metagarria.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

URDIAIN

50€ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

LARKA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketengatik 10€ko deskontu bala (beherapenetan izan ezik).

LASTAI GASOLINDEGIA

ALTSASU

0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO

ALTSASU

Olioaldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulantetan.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

DONOSTIA 2016 ALTSASUN: Kultur hiriburutzako Emusik programak Europako musika eskolen topaketa antolatu du. Musika formazio horietako bi Altsasun izanen dira heldu den ostiralean eta larunbatean.

kultura >>

Dantzaren Nazioarteko Egunean, dantza



Gaur, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gune parean

Unescok apirilaren 29a Dantzaren Nazioarteko Eguna izendatu zuen 1982an. Dantzariak euren eguna ospatzeko kalera aterako dira gaur Altsasun. Iortia kultur gunearen pareko espazioa hartuko dute dantza-

riek eta euren eguna dantza eginez ospatuko dute. Ikuskizunarekin gozatzeko gonbidapena egin diete sakandarrei. Dantza eguneko antolatzaileek sorpresak izanen direla iragarri dute. Sakandarrek, nahi izanez gero, Dantzaren Nazioarteko Egunean dantza eginez parte hartzeko aukera zabalik dute.

Herrialde Katalanetako doinuak



Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Cambrilsgo Les veus del Casal eta Tarragonako Cor Adagio abesbatzek Altsasun bat egingen dute Kataluniako musika eskaintzeko. Erku-dengo Ama abesbatzarekin egindako hartu-emanak emanen digu Sakanan bertan Herrialde Katalanetako doinuez gozatzeko. Izan ere, abesbatzen egitarauak Katalunia, Balear Irlak, Valentzia, Okziantania eta Alguergo (Sardinia) kantak jasotzen ditu. Horrela, kontzertuak batean eta bestean dauden kataluniar kulturaren komuneko aspektuak islatuko ditu. Kontzertuari hasiera Erku-dengo Ama abesbatzak emanen dio, bisitarietara eszenan tokia uzte-

ko. Emanaldia despeditzeko Kataluniako eta Altsasuko abesbatzak elkarrekin ariko dira.

Abesbatzei dagokienez, Cambrilsgo Les veus del Casal 1999an sortu zen. Pertsona helduz osatutako abesbatzen Kataluniako lehiaketan lehen saria eskuratu zuen 2010ean. Marc Guerris zuzendariaren gidaritzapean aritzen dira. Tarragonako Adagio abesbatza 1996an sortu zen eta Neus Torresek zuzentzen du. Hiriburu hartan dauden Els Russinyols haur abesbatza, Jove Cor eta Cor Ciutat de Tarragona abesbatzekin batera, Cor Ciutat de Tarragona elkarte osatzen dute. Elkarte horrek musika eta musikarekin bizi nahi duten pertsona guztiendako benetako abesbatza kantu eskola izatea du helburu.


Paxkalin, bisoi mutur zuria

Eider Eibarren ilustrazioekin liburua argitaratu du Castillo Suarezek Paxkalin liburua

Estreinakoz, Castillo Suarez-en haur literaturako protagonista bat ez da neskatokaxkagorri bat. Ezta pertsona bat ere. Animalia bat baizik, Paxkalin bisoi mutur txurria. Hilaren 7an egindako aurkezpenean egileak aitortu zuen "oso ipuin nafarra" dela sortu duena. Eta horrela argudiatu zuen: "Protagonista bisoi mutur zuria bat da. Jendeak ez daki baina hori da Nafarroako animalia adierazgarrienetako bat. Arriskuan dago. Nafarroan Arga eta Aragoi ibaitan, Erriberan dagoen animalia da". Suarezek argitu zuenez, bisoi mutur zuria "arriskuan dago. Arazo handiena da errepideetan autoek hil egiten dituzte, azpiko pasarik ez dutelako".

Argibide horiek eman ondoren idazle altsasuarrak jakinarazi zuen Paxkalin erreka bazterrean bizi dela. Arazo handia dauka: ondoko herrira zirkua etorri da eta hura ikusi nahi luke. Baina hara joateko errepidea pasa behar du. Suarezek azaldu zuenez, "bisoiak oso animalia otzanak, lasaiak dira. Ur geldoak maite dituzte. Paxkalinen aitak ez dio errepidea bakarrik pasatzen uzten. Paxkalin penatua dago, errepidea pasa ezin duelako".

Bere pena gainean, kontakizunean barna egiten duen ibilbidean hainbat animaliarekin egingen du topo. Bisoi mutur txurien beste arriskueta bat ageri da kontakizunean, bisoi mutur beltzak, hau da, kanpotik ekarritako espeziea. Haietako bat ezagutuko du



Haur literaturako uzta

Ebelina Mandarin (2010, Elkar), Leire Urbeltz ilustratzailea.
Nobio bat nire amarentzat (2011, Elkar), Iñaki G. Holgado ilustratzailea.
Muxurik nahi (2011, Mensajero), Eider Eibar ilustratzailea.
Krispeta hegalaria (2012, Elkar) Enrike Morente ilustratzaile.

lea.
Erikaren ttilikak (2013, Aizkorri) Estibaliz Jalon ilustratzailea.
Lorentxua (2013, Arbizu 1813-2013 herri ekimena) Cristina Fernandez ilustratzailea.
Agur, Agur (2015, Erein) Jose Mari Morcillo ilustratzailea.
Paxkalin (2016, Elkar) Eider Eibar ilustratzailea.

Paxkalinek. Eta bere ibili horretan beste hainbat animalia ere agertzen zaizkio Paxkalin. "Zoo bat da. Animalia haiekin dituen elkarrizketak dira liburuaren

ardatza". Suarez-en testuari irudiak Eider Eibarrek jarri dizkio. Estreinako aldia da Suarezek ilustratzaile batekin errepikatzen duena.

**LIBURUAK EROSTEKO
30 EUROKO
8 TXEKEREN ZOZKETA**

IRABAZLEAK:

- Frida Mendibe (Arbizu)
- Marisa Zabala (Etxarri Aranatz)
- Garazi Albarracín (Olatzagutia)
- Mariaje Pérez (Ziordia)
- Yahya El Bahkaoui (Etxarri Aranatz)
- Asier Zelaia (Altsasu)
- Iñigo Orella (Etxarri Aranatz)
- Josebe Sagastibeltza (Arbizu)

* Txekak liburutegian jaso ahal izanen dituzue.

irakurri,
gozatu eta
oparitu

Gozatu
Bidaiaz

Mank

s a k a n a



Oroimene- rako artea

Igandera arte, 16:30etatik 20:00etara, eta larunbatean eta igandean goizez, 14:00ak arte Arbizuko udaletxean ikusgai

Oroimenez Arbizu taldeak antolatuta Arbizuko udaletxeko batzar gelan arte erakusketa ikusgai dago. 1936ko gertaerak gogoan izan dituzte sortzaileek euren piezak sortzerakoan. Pintura, eskultura, taila, bideoa, argazkiak eta instalazioak izanen dira erakusketan. Guztiak arbizuarrek egindakoak.



Sortzaileak

Argiñe Berastegi (pintura), Migel Angel Reparaz (pintura), Ino Arriñe (pintura), Katrin Ginea (pintura), Inma Garcia (pintura), Cristina Fernandez (instalazioa), Jose Luis eta Ane Imaz (muntaiia), Ramoni Berastegi (muntaiia), Mila Berastegi (transferra), Juan Ihabar (zura), Ramontxo Flores (zura), Enara Insausti (transferra), Juan Carlos eta Nerea Reparaz (muntaiia), Aitziber Flores, (pintura), Imanol Rayo (bideoa), Miren Ustarroz (eskultura), Pello Lazkoz (eskultura), Mikel Guruziaga (eskultura), Juan Unzilla (zura), Pagoa Urzelai (gogoen kutxa), eta beste. +www.guaixe.eus

Agirrereren erakusketa Gasteizen

Angel Antonio Agirrek *Multiformalismo, la razón intuitiva* erakusketa ikusgai du Gasteizen, Querida María jatetxean (Sta Maria plaza, 2), garagarriaren 2ra arte. Akwarela paper gainean txinako tinta erabiliz egindako 21 lan dira, idazketa diruditen obrak. Horiekin batera, eskultura batzuk ikusgai daude.

Bakarrizketa gaua gaur Olaztin

Gaur, 22:30ean, Olatzagutiako Barandi tabernan

Enrique Loyola bakarrizketa egilearen ikuskizunarekin gozatzeko aukera izanen da gaur Olaztin. Umore "apurtzaile eta freskoarekin", bere bakarrizketan esaera zaharrak eta esapide ospetsuak tartekatuko ditu. Guztia, "bizitzaren absurdoaz hausnartzeko". Eskarmentu handia du, eta telebistako bakarrizketako hainbat saiotan parte hartu du. Bikoizketa aktorea, gitarra-jolea, irrati esataria, gidolaria eta irakaslea ere izan da.

Bertsioen saioa bihar Olaztin

Larunbatean, 23:30ean Olatzagutiako Clinker tabernan

Joan den urteko eszena berera bueltatuko dira Juanjo Ojeta eta Patxi Garro. Hau da, Harvey Keitel eta Señor Lobo. Eskarmentu handiko bimusikari, gitarra akustikoen laguntzaz Eric Clapton, Beatles, David Bowie, Creedence Clearwater Revival, John Mayall, Burning, Leño, Alarma, Barricada, Los Suaves eta beste hainbaten doinuak biluzten dituztenak. Tarantinoren Pulp Fiction filmetik hartu dute izena. Film hartan Harvey Keitel aktoreak Otsoa jaunaren papera jokatzen du.

Literatura hauteskundearen ibarreko emaitzak

Hego Euskal Herriko ikastoletako ikasleen idazle gogokoan Jon Arretxe (DBHn 2., Beti iparralderantz) eta Castillo Suarez (LH 3. eta 4. mailan 2., Agur, agur) sakandarrak daude

Andra Mari, Iñigo Aritza eta Txioika ikastoletako ikasleak Juul literatura hauteskundeetan parte hartu zuten ostegunean. Haur Hezkuntzatik hasi eta DBH-rainoko ikasleek boto bidez euskaraz argitaratutako liburu eta ilustratzaile gogokoenen alde egin zuten.



Juul literatura hauteskundeak				
Maila	Liburua	Idazlea	Urtea	Argitaletxea
Haur Hezkuntza	Non zaude, barraskilo?	Susanna Isern	2014	Txalaparta
	Oihana	Batzuk	2015	Susaeta
	Munstroek ere pixa egiten dute ohean	Pello Añorga	2015	Pamiela
Lehen Hezkuntza 1., 2.	Paxkalin	Castillo Suarez	2016	Elkar
	Agur, Agur!	Castillo Suarez	2015	Erein
Lehen Hezkuntza 3., 4.	Nur eta etxe sorgindua	Toti Martinez de Lezea	2015	Erein
	Paxkalin	Castillo Suarez	2016	Elkar
	Agur, Agur!	Castillo Suarez	2015	Erein
Lehen Hezkuntza 5., 6.	1512 Nafarroa, Amets urratua	Joseba Asiron	2012	Ikaslar
	Gizajo baten egunkaria 3 Hauxe besterik ez nuen behar!	Jeff Kinney	2012	Alberdania
	Nur eta dortoken uhartea	Toti Martinez de Lezea	2013	Erein
DBH	Nur eta kobazulo liluragarria	Toti Martinez de Lezea	2014	Erein
	Beti iparralderantz	Jon Arretxe	2014	Erein
	Ezekiel	Jasone Osoro	2014	Elkar
Ilustratzaileak	Ezekiel nora ezean	Jasone Osoro	2014	Elkar
	Eider Eibar			
	Jose Mari Morcillo, Morkots			
	Juan Luis Landa			
	Cristina Fernandez			

bazterretik

Aritz Viñas

Playing for change

Gaurkoan musika proiektu interesgarri bati buruz hitz egitera nator. *Playing for Change* multimedia musika proiektua da. 2002an sortu zen eta musika erabilita aldaketa soziala bilatzen du. 2002an sortu zen proiektua. Fundatzaileak Mark Johnson, Raan Williams eta Whitney Kroenke izan ziren. Hauen ideia grabaketa estudio bat kalera eramatea izan zen, kalean jotzen zuen jendearekin

disko bat grabatzeko ideiarekin. Honetaz gain, kamara batzuk ere eraman zituzten, horrela kaleko atmosfera guztia biltzeko. Mundu osoan zehar ibili ziren grabaketa hauek egiten. Hauek dira bisitatutako leku batzuk: New Orleans, Bartzelona, Hego Afrika, India, Nepal, Irlanda... Grabaketarako materiala eraman zuten beraiekin eta toki ezberdinetako kaleko artistei abesti bera abesten grabatu zieten: horrela, abesti bera estilo oso ezberdinetan grabatzea lortu zuten.

Egindako lana dokumental moduan aurkeztu zuten eta hainbat sari lortu zituzten. Dokumentalaren izenburua "Acinematic discovery of street musicians" da.

Egindako lana ondo zegoen, baina fundazio honek aurrerapauso bat emateko gogoan zuten eta, horrela, kalean ezagututako artistak batu egin zituen eta Playing for change Band sortu zuten. Gaur egun, taldeak munduko hainbat tourretan parte hartzen du, eta horrela haien mezua zabaltzen dute: kultura

ezberdinetakoak izanda, denek hitz egiten dugula hizkuntza bera: musika.

2008an proiektua berriro ere hazi egin zen, eta Playing for change fundazioa sortu zuten. Helburua munduan zehar musika eskolak sortzea eta gazteak bertan biltzea da. 2008tik 11 eskola sortu dituzte munduan barna.

2011an Playing for change eguna sortu zuten, haien proiektua finantzatzeko modu bezala. Lehenengo urte horretan 330 ekitaldi eskaini

ziren 52 herrialdeetan. 2014an 400 ekitaldi egin ziren 60 herrialdeetan. 2013 urtean fundazio honek musika ikasteko programen finantzaketa sortu zuen, donazioen bitartez gazte baten musika formazioa ordaintzeko asmoarekin. Honen inguruan interesa baldin baduzue haien web gunean sartzeko aukera duzue: Playingforchange.com.

Honetaz aparte, grabatutako bideo guztiak ikusgarri dituzue haien Youtube-ko kanalean.

Amateur antzerkiarekin hiru hitzordu

Altsasuko VI. Antzerki amateur zikloa, Teatreves, maiatzaren 7an, 14an eta 21ean izanen da, larunbatetan, 20:00etan

Tarima Beltza antzerki taldeak seigarren urtez jarraian Teatres zikloa antolatatu du. Tarima Beltzak antzerkiera publiko berria erakartzeko herriko kolektiboen artean sarrerak banatuko ditu. Aurten Altsasu Memoria, irakurketa taldea eta institutuko antzerki taldeko kideei emanen dizkiete gonbidapenak.

+www.guaixe.eus



Egitaraua

Maiatzak 7: Tengamos sexo
Maiatzak 14: Urtsua, leyenda de luz y niebla
Maiatzak 21: La casa de Bernarda Alba

Sarrerak

Emanaldi bakoitzako 5 euro.
Hiru saioetarako txartelak 12 euro.



Musikaren erraldoiak

Ostegunean, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gune parean Barañaingo Alaitz eta Altsasu Institutuko ikasleen kontzertua

Musika emanaldi erraldoia eskaintzeko bat egin dute Altsasu institutuko eta Barañaingo Alaitz institutuko ikasleek. Asteartean estreinakoz Barañainen elkartuko dira kontzertua eskaintzeko eta ostegunean, berriz, Altsasun. Musika talde jendetsua, 250 bat jole, Iortia kultur gune pareko plazan ariko da. Eguraldiak lagunduko ez balu Burunda pilotalekuak hartuko luke kontzertu erraldoia.

Altsasu institutuko DBH 1., 3. eta 4. mailetako 170 bat ikaslek parte hartuko dute emanaldietan.

Iñigo Aldunate Burguete musika irakaslearen laguntzarekin prestatzen ari dira emanaldia. Haiek ikasturte hasieran hasi ziren egitarauaz hazten, "ikasleengustuak kontuan hartuz". Moldaketak egin ondoren, ikasleekin abenduan hasi ziren lanean. Aldunatek jakinarazi digunez, "lan handiena musika klasean egiten dugu, txirularekin. Ahotsak eta beste musika tresnak atsedendietan ere landu behar izaten ditugu". Bigarren ebaluazioa despeditu ondoren kontzertua prestatzen "buru-belarri" ari dira. Hura

14. emanaldia

Altsasu Institutuak kontzertu erraldoiak antolatzen 2002an hasi zen. Orduan Joxan Zabalo zen musika irakaslea.

pasa ondoren, "beste gauza batzuei" helduko dietela esan digu irakasleak.

Osteguneko emanaldian ikasle gehienek txirulak joko dituzte. Baina horiekin batera, bateria, baxu eta gitarra elektrikoak, teklatuak, txistu, zeharkako txirula, saxo, tronpeta, tronboia eta akordeoiak joko dituzte ikasleek. "Kan-

Egitaraua

Kanta	Kantaria
Rolling in the deep	Adele
Neskatxo	Ttakun
Gogoak	Esne Beltza
American land	Bruce Springsteen
I feel good	James Brown
Brian boru's march	Irlandar herrikoia
Kwai ibaiko zubia	Kenneth J. Alford
Mad world	Gary Jules
Martxa baten lehen notak	Mikel Laboa
Gora ta gora beti	Oskorri

taren moldaketaren arabera musika tresna batzuk edo besteek hartzen dute parte. Kanta gehienek ere ahotsaren laguntza dute eta dantza eta koreografia batzuk ere prestatu ditugu", azaldu digu Aldunatek.

Azken ameslariaren kixotekeriak

Asanak taldekoek antzezlanak Altsasu institutuko DBH 3. eta 4. mailako ikasleendako jokatu dute gaur goizean eta, arratsaldean, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean. Sarrera librea

Larunbaten Egunean, pasa den larunbatean, Migel de Cervantes Saavedra idazlearen

heriotzaren laugarren mendeurrena bete zen. Efemeridea gogon Altsasu Institutuko antzerki tailerrak, aSanak-ek, lan originala prestatu du Marian Utrera irakaslearekin batera. Asanak-etik jakinarazi dutenez, "prestatu dugun lanaren aurrean ez dugu inor axolagabe utzi

nahi; izan ere, geuk prestatutakoa ez da egilearen maisu-lanaren beste bertsio bat, baizik eta baloratzeko aitzakia, lanarekiko gure miresmena adierazteko modua eta gaurkotasuna emateko aukera ematen diguna, azken hau oraindik ere neurri handiagoan lor badaiteke behintzat".

Antzezleak

1. neska eta Dulcinea: Irati Gomez
2. neska: Nicole Figueroa
3. neska: Munia El Marhoum
4. neska: Naroa Cancho
5. neska: Ayeisa Moran
6. neska: Aicha Bakache
7. neska: Fatima El Ogdji
8. neska: Nerea Larraza
9. neska: Nerea Cano

1. mutila eta pianojolea: Imanol Miranda
Ama: Alaitz Salgado
Iloba: Leire Berastegi
Sancho: Julen Anton
Kixote: Xabier Claver
Dantzariak: Leire Chamorro eta Alaitz Sorozabal

Lau sakandar Artea Oinez

Beste behin ere Nafarroako ikastolen festaren eta artearen arteko uztartzea eman da eta Artea Oinez erakusketa ikusgai dago. Viana eta Lodosako ikastolek antolatuta, erakusketa Iruñeko gotorlekuko Arma aretoan bisitatu daiteke, maiatzaren 22ra arte. Ostiralean mustu zuten erakusketa komisarioa Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendaria da, Josu Reparaz. Hark 72 artisten 74 lanekin osatu du erakusketa, izen ezagunekin eta bidea egiten ari diren sortzaileekin. Haien artan daude Jose Ramon Anda, Dora Salazar, Txuspo Poyo eta Mikel Okiñena. Iruñearen ondoren, Lodosako Kultur Etxeko Agustinos aretoan ikusgai izanen da, maiatzaren 27tik garagarriaren 17ra.

Lakuntzako bi talde Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantariko jaialdi nagusian

Larunbaten, 18:30ean, Tafallako kultur gunean ospatuko da. Sarrerak agortuta daude

Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdiak despeditzeko jaialdi nagusian 200 artistek parte hartuko dute. 18 kanta eskainiko dituzte. Jaialdian parte hartuko duten taldeen artean Lakuntzako Luis Fuentes eskolako eta San Saastin musika eskolako talde bana izanen da. Lehenak 4.ak izanen dira eszenan eta, bigarrenak, 7.ak. Biek jaialdirako gonbidapena martxoaren 19an Lakuntzan izan zen jaialdian lortu zuten.



Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantari jaialdia

Taldea / kideak	Maila	Kanta	Egilea
Luis Fuentes eskola	LH4	Udarako gau luzeak	Venddeta
Aimar Apaolaza, Bakarne Arregi, Nerea Askarai, Saioa Cabrera, Ander Cocera, Andrea Lacalle, Maider Miranda, Uxue Ondarra, Gorka Senar, Leire Urtsasun eta Elayne Valverde.			
San Saastin musika eskola	8-11 urte	Txingurriye	Martin Larraza
Maialen Nuñez, Lexuri Petriati, Anne Berastegi, Lide San Sebastian, Alain Razkin, Oihan Gorriti, Kitzya Valverde, June Astiz, Maider Miranda, Bakarne Arregi, Aimar Apaolaza, Elayne Valverde, Unax Gaintzarain, Andrea Lacalle, Aimar Ramajo eta Ibon Iribarren.			

G asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 8%	euria: 38%	euria: 20%	euria: 8%	euria: 15%	euria: 13%	euria: 15%
Min: 2 Max: 13	Min: 3 Max: 9	Min: 2 Max: 10	Min: 2 Max: 14	Min: 5 Max: 13	Min: 6 Max: 18	Min: 9 Max: 20

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	18	3.5	6
Etxarri A.	19.1	2.9	5.6
Altsasu	17	3	13.3
Aralar	9	-2.2	26.6
Urbasa	13.5	2.5	4

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
30	6	13	21

EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com
KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

APIRIBILEKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.
Magna Gurpea: 2 sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.
Magna Gurpea: 2 sarrera.

Ekain berri
KUPA
AQUARIUM
CAMPING ARTAZA
LACTURALE
GAZTEZULO

>> **11**
galdera

Garoa Gartzandia
Dantza integrala

Testua: Maialen Huarte Arano



Ezkontzetarako gonbidapenak

on-line paperean

gk
KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

1. Zer da dantza integrala?
Dantza Integralaren oinarriak mugimendu askea eta gorputz adierazpena dira. Horiguztia sormenarekin uztartuz, pertsonen eta taldearen sormen ahalmena garatzen da. Mugimendura bideratzeko musika, objektuak, metaforak, mugimendukonfirmazioak eta bistaratzeak erabiltzen dira. Bideratzaileek, ipuin bat bailitzan, proposamen bat egiten dugu, eta norberak garatzen du. Gorputzarekin istorio bat kontatuko du norbanakoak eta taldean sortuko da istorioa.

2. Noiz hasi zinen dantza hori barneratzen, norekin?
2010ean hasi nintzen formazioa egiten, Zaragozan Miren Saralegi eta Belen Capaperen eskutik. Eurek sortutako formazioa da. Mugimenduaren terapeutak dira eta dantza eta sormenean ere formatuak daude, Maria Fuxen metodoarekin. Nik garai honetan adierazteko beharra sentitzen nuen, askotan hitzek ez zuten asetzen nire adierazpen nahia.

3. Zer eskaintzen dizu?
Dantza honek asko eskaini dit. Epaiketarik gabeko espazio bat sortzen da, unean-unean daukadanekin sentimenduak adierazi ditzakedan dantza da. Inolako rol edo paperarik segitu gabe. Adierazpen ez berbalaren bitartez, adierazten ditugu sentimendu, irudi, erritmo propioak, fantasiak, pertsonaiak... Zuzen, zuzen dantza sortzean datza, bizitzaren dantza dela ere esan genezake.

4. Zer onura du dantza integralak?
Metodo honek mugimendu natural bat garatzeko aukera ematen du. Oso lan askatzailea da, tentsio-akarinduz. Gure sormena eta sena esnatzen ditugu eta saioetan gertatzen dena bizitzarako baliagarria egiten zaigu. Gure mugak onartuz, gure gaitasunei indarra ematen ahal diegu.

5. Nola dantzaten da?
Beroketa batekin hasten dira saioak, luzapenak, arnasketa eta mugimendu gidatua eginez. Ondoren saio horretako gaia edo materialarekin dinamika ezberdinak egiteari ekingo diogu, bakarka, bina eta taldeka lan eginez. Amaitzeko, gehienetan lan plastikoa egiten da eta bukatzeko hitz gutxi batzuk konpartitzen ditugu.

6. Irurtzunen ikastaroak eman dituzu. Zer ikas daiteke?
Esperientzia bat eramango du etxera parte hartzaileak eta bizitzan bezala, esperientzia guztietatik ikas dezakegu. Eskaintzen dudana espazio bat da, espazio zaindua eta gidatua. Mugimendura bideratzeko dinamikak, ariketak, luzamendu, arnasketa, pautak, musika... Gorputzarekin eta dantzarekin harremana sortzeko baliagarria da.

7. Ze nolako harrera izan zuen ikastaroak?
Taldea txikia izan gara eta lau saio egin ditugu Irurtzunen. Ongi joan da, jendea sentsazio onarekin ateratzen da, askatzailea, gozamen, gauza berriak deskubritzea. Lakuntzan 4 orduko saio bat egin genuen udaberria ospatzeko.

8. Nork dantza dezake, nori gomendatuko zenioke?
Interesa duen edonorentzat dago irekia, gaitasun eta adin ezberdinetako pertsonendako. Tailerretan adin mugak jartzen dira haurrak eta gazte/helduak banatuaz. Dantza Familiaran ere egin daiteke, guraso eta haurrak nahastuz. Nere saioetan, 15 urtetik gorakoek egin dezakete dantza, eta gaitasun fisiko eta psikiko ezberdinetako pertsonen har dezakete parte.

9. Sakanan ikastaro gehiago emanen dituzu?
Maiatzaren 16an Lakuntzako Kultur Etxean, doako saio bat eskainiko dut, Dantza Integrala frogatu nahi duen ororentzat, 15 urtetik gorakoentzat, 18:30etatik 20:00etara. Hurrengo ikasturtera begira, lehenengo hiru hilabeterako saioak egin nahi ditut Lakuntzan (informazioa: garogartzi@gmail.com edo 617 108 633).

10. Topaketak ere izanen dira.
Dantza Integral Topaketa maiatzaren 20tik 22ra egingen dugu Artiedan. Dantza Integrala ezagutarazi eta zabaldunahi dugu, eta bide batez formazioa egin dugunok topagune eta esperientzia gune bat izatea.

11. Dantza mota hau nondik dator, nor da aitzindaria?
Maria Fux dantzari profesional argentinarra. Bere lagun batzuen alaba gor-mutuarekin esperimentatuz, dantzak onura handiak ekaritzazkeela ohartu zen, aldaketa pertsonal handiak ematen zirela ohartu zen. Hura landuz, Dantza-terapia izenekora arte iritsi arte.